b) Cuando se trate de entidades o establecimientos permanentes que tributen conjuntamente a ambas Administraciones, la parte de las rentas que satisfagan en proporción al volumen de operaciones realizado en el País Vasco.

No obstante, en los supuestos a que se refiere esta letra, la Administración competente para la exacción de la totalidad de los rendimientos será la del territorio a quien corresponda la competencia inspectora de las personas, entidades o establecimientos permanentes que presenten la liquidación en representación del no residente conforme a los criterios establecidos en el presente Concierto Económico, sin perjuicio de la compensación que proceda practicar a la otra Administración por la parte correspondiente a la proporción del volumen de operaciones realizado en el territorio de esta última.

Kasu espezifiko horietan, foru-aldundiek eskatuko dituzte atxikipen eta konturako ordainketak, atxikipena egitera behartuta dagoenak Euskadin egindako eragiketen bolumenaren proportzioan eta Ekonomia-itunean Sozietateen gaineko Zergarako jasotako arau espezifikoak aplikatuz.

En estos supuestos específicos, las retenciones e ingresos a cuenta se exigirán por las Diputaciones Forales en proporción al volumen de operaciones realizado en el País Vasco correspondiente a quien esté obligado a retener, aplicando las reglas especificadas para el Impuesto sobre Sociedades en el Concierto Económico.

Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinen gaineko karga berezia, ondasun higiezina Euskadiko lurraldean badago, lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiari ordaindu behar zaio.

En cuanto al Gravamen Especial sobre Bienes Inmuebles de entidades no residentes, éste corresponderá a la Diputación Foral competente por razón del territorio cuando el bien inmueble esté situado en territorio vasco.

Establezimendu iraunkorrik ez duten egoiliarrei eska dakiekeen loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia Estatuko Administrazioari edo lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiari ordainduko zaio, saria irabazi duen loteriako dezimo, zatiki edo kupoia edo apustua zein lurraldetan (Euskadin edo lurralde erkidean) erosi den, horren arabera.

Y en referencia al Gravamen especial sobre los premios de determinadas loterías y apuestas exigible a no residentes sin establecimiento permanente, éste corresponderá a la Administración del Estado o Diputación Foral competente por razón del territorio según que el punto de venta donde se adquiera el décimo fracción o cupón de lotería o apuesta premiados se localice en territorio común o vasco.

Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, tributuak bi administrazioei ordaintzen zaizkien kasuetan, Sozietateen gaineko Zerga kudeatzeko aurrez ikusitako arauak aplikatuko dira.

Cuando se graven rentas obtenidas mediante establecimiento permanente, en los casos de tributación a ambas Administraciones, se aplicarán las reglas de gestión del Impuesto sobre Sociedades.

Establezimendu iraunkorraren bidez lortutako errentak kargatzen direnean, Administrazio eskudunak egingo du zergaren ikuskapena, Sozietateen gaineko Zergan aurreikusitako arauak aplikatuz.

3.d. Kreditu-Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga

Kreditu-erakundeen gordailuen gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko (23 ter artikulua).

Aurrekoa bete beharrekoa izango bada ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga honen karga-tasak ezar ditzakete, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden arauek ezarritako mugen eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Estatuko Administrazioak edo lurraldearen arabera eskuduna den foru-aldundiak egin beharko du zergaren ordainarazpena, hirugarrenen funtsak dauden egoitza nagusia, sukurtsalak edo bulegoak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Hala ere, merkaturatze-sistema ez-presentzialen bidez jasotako funtsen ondoriozko zerga-ordainarazpena, bai eta lurralde bati atxikitzeko modukoak ez direnen gainekoa ere, Euskadiko Lurralde Historikoei egotziko zaie, lurraldeari atxikitako gordailuetan duen partaidetzaren arabera dagokion proportzioan.

Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu aurreko paragrafoetan xedatutako irizpidearen arabera.

La inspección del Impuesto, cuando se graven rentas obtenidas mediante establecimiento permanente, se realizará por la Administración que resulte competente aplicando las reglas previstas en el Impuesto sobre Sociedades.

3.d. Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito

El Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales que las establecidas en cada momento por el Estado (artículo 23 ter).

No obstante lo anterior, las Instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán establecer los tipos de gravamen de este Impuesto dentro de los límites y en las condiciones vigentes en cada momento en territorio común.

Asimismo, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La exacción del impuesto corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación Foral competente por razón del territorio según que la sede central, sucursales u oficinas donde se mantengan los fondos de terceros estén situadas en territorio común o vasco.

No obstante, la exacción derivada de fondos mantenidos mediante sistemas de comercialización no presenciales y de aquellos otros no susceptibles de territorialización se atribuirá a los Territorios Históricos del País Vasco en la proporción que les corresponda según su participación en los depósitos territorializados.

Los pagos a cuenta del impuesto se exigirán por una u otra Administración conforme a los criterios expuestos en los parrafos anteriores.

3.e. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko (23 quarter artikulua).

Nolanahi ere, lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Estatuko Administrazioak edo lurraldearen arabera eskuduna den foru-aldundiak egin beharko du zergaren ordainarazpena, energia elektrikoa ekoizteko instalazioak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu aurreko paragrafoan xedatutako irizpidearen arabera.

Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

3.e. Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica

El Impuesto sobre el Valor de la Producción de la Energía Eléctrica es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado (artículo 23 quarter).

No obstante, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La exacción del Impuesto corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación Foral competente por razón del territorio según que las instalaciones de producción de energía eléctrica radiquen en territorio común o vasco.

Los pagos a cuenta del Impuesto se exigirán por una u otra Administración, conforme al criterio contenido en el párrafo anterior.

Las devoluciones que procedan serán efectuadas por las respectivas Administraciones en la cuantía que a cada una corresponda.

3.f. Energia Nukleoelektrikoa Sortzetik Deribatutako Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Sortzearen Gaineko Zerga, eta Erregai Nuklear Agortua eta Hondakin Erradioaktiboak Instalazio Zentralizatuetan Biltegiratzearen gaineko Zerga

Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko zerga eta erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gaineko zerga tributu itunduak dira eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau

3.f. Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos Resultantes de la Generación de Energía Nucleoeléctrica e Impuesto sobre el Almacenamiento de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos en Instalaciones Centralizadas

El Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos Resultantes de la Generación de Energía Nucleoeléctrica y el Impuesto sobre el Almacenamiento de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos en Instalaciones Centralizadas son tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en

berberak erabiliko dira haiek eraentzeko (23 quinquies artikulua).

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioak edo eskuduna den foru-aldundiak egingo du, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzeko instalazioak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatuetan biltegiratzearen gaineko zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioak edo eskuduna den foru-aldundiak egingo du, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak biltegiratzeko instalazioak lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dauden kontuan hartuta.

Zerga hauen konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu aurreko bi paragrafoetan xedatutako irizpideen arabera.

3.g. Gasaren, Petrolioaren eta Kondentsatuen Erauzte-Balioaren Gaineko Zerga

Gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzte balioaren gaineko zerga tributu itundu bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko (23 sexies artikulua).

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorpen- eta sarrera-ereduak onesteko eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde

cada momento por el Estado (artículo 23 quinquies).

No obstante, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La exacción del Impuesto sobre la Producción de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos Resultantes de la Generación de Energía Nucleoeléctrica corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación Foral competente por razón del territorio según que las instalaciones donde se produzca el combustible nuclear gastado y los residuos radiactivos resultantes de la generación de energía nucleoeléctrica radiquen en territorio común o vasco.

La exacción del Impuesto sobre el Almacenamiento de Combustible Nuclear Gastado y Residuos Radiactivos en Instalaciones Centralizadas corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación Foral competente por razón del territorio según que las instalaciones donde se almacene el combustible y los residuos radiquen en territorio común o vasco.

Los pagos a cuenta de estos impuestos se exigirán por una u otra Administración, conforme a los criterios contenidos en los dos párrafos anteriores.

3.g. Impuesto sobre la Extracción de Gas, Petróleo y Condensados

El Impuesto sobre el Valor de Extracción de Gas, Petróleo y Condensados es un tributo concertado que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado (artículo 23 sexies).

No obstante, las instituciones competentes de los Territorios Históricos podrán aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de

erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Zergaren ordainarazpena Estatuko Administrazioak edo eskuduna den foru-aldundiak egingo du, maiatzaren 21eko 8/2015 Legearen 22. artikuluak aipatzen duen hidrokarburo-hobien ustiapen-kontzesioaren erreferentziako perimetroaren barruko eremua lurralde erkidean edo Euskadiko lurraldean dagoen kontuan hartuta (8/2015 Legea, maiatzaren 21ekoa, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatu eta hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiaketarekin loturiko hainbat zerga-neurri eta zerga-neurri ez direnak arautzen dituena).

Aurreko paragrafoan adierazitako perimetroaren barruko eremua lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean baldin badago, zergaren ordainarazpena bi administrazioen artean egingo da, modu proportzionalean.

Zergaren konturako ordainketak administrazio batek edo besteak eskatuko ditu aurreko paragrafoetan xedatutako irizpidearen arabera.

Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

La exacción del Impuesto corresponderá a la Administración del Estado o a la Diputación Foral competente por razón del territorio en función del lugar donde se ubique el área incluida dentro del perímetro de referencia de la concesión de explotación del yacimiento a que se refiere el artículo 22 de la Ley 8/2015, de 21 de mayo, por la que se modifica la Ley 34/1998, de 7 de octubre, del Sector de Hidrocarburos, y por la que se regulan determinadas medidas tributarias y no tributarias en relación con la exploración, investigación y explotación de hidrocarburos.

En caso de que el área incluida dentro del perímetro señalado en el párrafo anterior se encuentre en territorio común y vasco, la exacción de impuesto se distribuirá proporcionalmente entre ambas administraciones.

Los pagos a cuenta del Impuesto se exigirán por una u otra Administración, conforme al criterio contenido en los párrafos anteriores.

Las devoluciones que procedan serán efectuadas por las respectivas Administraciones en la cuantía que a cada una corresponda.

3.h. Ondarearen gaineko Zerga

Ondarearen gaineko zerga tributu itundu bat da eta araudi autonomoari dagokio (24. artikulua); beraz, lurralde historikoetako erakunde eskudunek arautuko dute hura. Arautzeko eskumen horren muga bakarra Ekonomia-ituneko harmonizazio-arauak izango dira.

Lurralde historikoetako foru-aldundi eskudunak edo Estatuak eskatuko du zerga, zergaduna pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga bidez administrazio batari edo besteari lotuta dagoen kontuan hartuta, eta tributupean diren ondare-elementuak zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe. Beraz, zerga honen lotura-puntua zergadunaren ohiko bizilekua da; hau da,

3.h. Impuesto sobre el Patrimonio

El Impuesto sobre el Patrimonio tiene carácter de tributo concertado de normativa autónoma (artículo 24). Las Instituciones competentes de los Territorios Históricos pueden regular este Impuesto sin otras limitaciones que las propias normas de armonización contenidas en el Concierto Económico.

Este tributo, se exigirá por la misma Administración tributaria, en razón del territorio, a la que esté sujeto la persona contribuyente por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, independientemente del territorio en el que radiquen los elementos patrimoniales objeto de tributación. En definitiva, por tanto, el punto de conexión de este Impuesto es la residencia habitual del contribuyente, en coincidencia con el

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren lotura-puntu bera.

Zerga ordaintzeko betebehar erreala duten zergadunen kasuan, ondasunen eta eskubideen baliorik gehiena Euskadiko lurraldean baldin badago, foru-aldundiei egokituko zaie zerga ordainaraztea. Horretarako, Euskadiko lurraldean kokatuta daudela ulertuko da, hain zuzen ere, lurralde horretan dauden, erabil litezkeen edo bete beharko liratekeen ondasun eta eskubideak.

Azken egoitza Euskadin izan duten ez-egoiliarrek ondarearen gaineko zerga norberaren betebeharraren arabera ordaintzea aukeratzen dutenean, lurralde erkidean edo foru-lurraldean ordaindu ahal izango dute eta aukeratzen duten lurraldeko arautegia bete beharko dute.

3.i. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga tributu itundu bat da eta araudi autonomoaren pean dago (25. artikulua). Lurraldea dela-eta eskumena duen foru-aldundiak ordainaraziko du zerga hori honako kasu hauetan:

a) «Mortis causa» eskuraketetan, eta bizitza-aseguruen onuradunek aseguratuaren heriotzaren ondoren kopuruak hartzen dituztenean, baldin eta sortzapen-egunean kausatzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago. Kausatzailearen bizilekua atzerrian badago, zergadunek bizilekua Euskadin badute.

b) Ondasun higiezinen eta haien gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasun horiek Euskadiko lurraldean kokatuta baldin badaude. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badauka sortzapenaren egunean. Xedatutakoa dela-eta, ondasun higiezinen dohaintzatzat hartuko dira Baloreen Merkatuaren urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 314. artikuluan aipatutako doako balore-eskualdatzeak (4/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Balore

establecido para la tributación personal sobre la renta.

En el caso de los contribuyentes por obligación real de contribuir, la exacción del Impuesto corresponderá a las Diputaciones Forales cuando el mayor valor de los bienes y derechos radique en territorio vasco. Se entenderá, a estos efectos, que radican en territorio vasco los bienes y derechos que estuvieran situados, pudieran ejercitarse o hubieran de cumplirse en dicho territorio.

Cuando la persona no residente que hubiera tenido en el País Vasco su última residencia opte por tributar conforme a la obligación personal, podrá tributar en territorio común o foral conforme a su respectiva normativa.

3.i. Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones

Así mismo, el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones es un tributo concertado de normativa autónoma (artículo 25), correspondiendo su exacción a la Diputación competente por razón del territorio en los siguientes casos:

a) En las adquisiciones «mortis causa» y las cantidades percibidas por las personas beneficiarias de seguros sobre la vida para caso de fallecimiento, cuando la persona causante tenga su residencia habitual en el País Vasco a la fecha del devengo. En el caso de que la persona causante tuviera su residencia en el extranjero cuando los contribuyentes tuvieran su residencia en el País Vasco.

b) En las donaciones de bienes inmuebles y derechos sobre los mismos, cuando éstos bienes radiquen en territorio vasco. Si los bienes inmuebles radican en el extranjero, cuando la persona donataria tenga su residencia habitual en el País Vasco a la fecha del devengo. A estos efectos, tendrán la consideración de donaciones de bienes inmuebles las transmisiones a título gratuito de los valores a que se refiere el artículo 314 del Real Decreto Legislativo 4/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Mercado de Valores.

Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

c) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Euskadin baldin badauka sortzapenaren egunean.

c) En las donaciones de los demás bienes y derechos, cuando la persona donataria tenga su residencia habitual en el País Vasco a la fecha del devengo.

d) Zergadunak ohiko bizilekua atzerrian daukanean, baldin eta ondasunen eta eskubideen baliorik gehiena Euskadiko lurraldean baldin badago, eta bizi-aseguruetako hitzarmenetatik lortutako kopuruen kasuan ere bai, hitzarmen hori egoitza Euskadin duten aseguru-erakundeekin egin bada, edo Euskadin egin bada bertan jarduten duten atzerriko erakundeekin.

d) En el supuesto en el que el contribuyente tuviera su residencia en el extranjero, cuando el mayor valor de los bienes o derechos radique en territorio vasco, así como por la percepción de cantidades derivadas de contratos de seguros sobre la vida cuando el contrato haya sido realizado con entidades aseguradoras residentes en el territorio vasco, o se hayan celebrado en el País Vasco con entidades extranjeras que operen en él.

Aurreko apartatuko a) eta c) letretan jasotako kasuetan, foru-aldundiek lurralde erkideko arauak aplikatuko dituzte, kausatzaileak edo dohaintza-hartzaileak egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean aurreko bost urteetako denboraldian, zergaren sortzapenaren egunetik kontatuta. Autonomia Estatutuaren 7.2. artikuluaren arabera izaera politikoz euskal herritar izaten jarraitu dutenei ez zaie arau hori ezarriko.

En los supuestos contemplados en las letras a) y c), las Diputaciones Forales aplicarán las normas de territorio común cuando las personas causante o donataria hubiera permanecido en territorio común un mayor número de días del periodo de los 5 años inmediatos anteriores, contados desde la fecha del devengo del impuesto. Esta norma no será aplicable a quienes hayan conservado la condición política de vascos con arreglo al artículo 7.2 del Estatuto de Autonomía.

Agiri baten bidez dohaintza-emaile bakar batek dohaintza-hartzaile bati ondasunak edo eskubideak dohaintzan ematen badizkio eta, aurrez azaldutako a), b), c) eta d) irizpideen arabera, etekina lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean sortutakoa dela pentsatu behar bada, eskualdatutako ondasun eta eskubide guztien balioari lurralde bakoitzean legokiokeen batez besteko tasa aplikatuko zaio, bakoitzaren arauen arabera eta lurralde bakoitzari egotzitako dohaintzen balioaren etekinaren gainean, eta hortik aterako da lurralde bakoitzari dagokion kuota.

Si en un documento se donasen por un mismo donante a favor de un mismo donatario, bienes o derechos y, por aplicación de los criterios a), b), c) y d) antes descritos, el rendimiento deba entenderse producido en territorio común y vasco, corresponderá a cada uno de ellos la cuota que resulte de aplicar, al valor de los donados cuyo rendimiento se le atribuye, el tipo medio que, según sus normas, correspondería al valor de la totalidad de los transmitidos.

Era berean, dohaintzak metatu behar diren kasuetan, Euskadiri zein kuota dagokion jakiteko, metatutako dohaintza guztien balioari legokiokeen batez besteko tasa aplikatu behar zaio egun eskualdatuta dauden ondasun eta eskubideen balioari, bere arauen arabera. Horretarako, aurreko dohaintzetatik datozenak eta gaur egungo eskualdaketatik datozenak izango dira ondasun eta eskubide metatu guztiak.

Así mismo, cuando proceda acumular donaciones, corresponderá al País Vasco la cuota que resulte de aplicar, al valor de los bienes y derechos actualmente transmitidos, el tipo medio que, según sus normas, correspondería al valor de la totalidad de los acumulados. A estos efectos, se entenderá por totalidad de los bienes y derechos acumulados los procedentes de donaciones anteriores y los que son objeto de la transmisión actual.

3.j. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubidea Europar Batasun osoan harmonizatuta dago. Estatuen arautze-ahalmena mugatzen da Europar Batasuneko araubideak berariaz ezarritako zenbait alderdi finkatzera. Aurreko guztiak eraginda eta zergaren ezaugarriak aintzat harturik, zerga horren itunketa ordainarazpen-ahalmena banatzean datza bereziki; izan ere, arautze-ahalmenak zerga kudeatzearen zenbait alderdi baino ezin ditu erabaki.

Hartara, Ekonomia-itunak xedatzen du Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen arau substantibo eta formal berberak erabiliko direla BEZa eraentzeko (26. artikulua), ereduei eta sarrera-epeei dagokienez izan ezik. Hala ere, aitorpen- eta sarrera-eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epe horiek, berriz, ez dira Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Foru-aldundiek Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumen esklusiboa izango dute, subjektu pasiboa egoera hauetakoren batean badago (27. artikulua):

- Egoitza fiskala Euskadin izan eta aurreko urtean haren eragiketen bolumen osoa 10 milioi eurotik gorakoa izan ez bazen.

- Euskadin bakarrik jarduten badu eta aurreko ekitaldian eragiketen bolumena 10 milioi eurotik gorakoa izan bazen, egoitza fiskala non duen aintzat hartu gabe.

Horrez gain, foru-aldundiek eragiketen bolumenaren proportzioan ordainaraziko dute zerga, subjektu pasiboak euskal lurraldean eta lurralde erkidean jarduten duenean; betiere, 10 milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena egiten badu eta egoitza fiskala non duen aintzat hartu gabe.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 10 milioi euroko kopurua zenbatzeko, egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan. Jardueran

3.j. Impuesto sobre el Valor Añadido

La normativa del Impuesto sobre el Valor Añadido está armonizado en el conjunto de la Unión Europea. La capacidad normativa de los Estados se limita a determinados aspectos expresamente previstos por la regulación comunitaria. Ello, junto a las características propias del Impuesto, ha significado que en su concertación se atienda al reparto de la capacidad exaccionadora, dado que la capacidad normativa se limita solo a aspectos relacionados con su gestión.

Así, el Concierto establece (artículo 26) que el IVA debe regirse por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, a excepción de los modelos y plazos de ingreso. Si bien, los modelos de declaración e ingresos han de contener, al menos, los mismos datos que los de territorio común y los plazos de ingreso para cada período de liquidación no deben diferir sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Las Diputaciones Forales exaccionarán (artículo 27) de forma exclusiva el Impuesto sobre el Valor Añadido cuando el sujeto pasivo se encuentre en alguna de las siguientes circunstancias:

- Que tenga su domicilio fiscal en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el año anterior no hubiera sido superior a 10 millones de euros.

- Que opere exclusivamente en el País Vasco y su volumen total de operaciones en el año anterior exceda de 10 millones de euros, cualquiera que sea el lugar del domicilio fiscal.

Además, las Diputaciones Forales exaccionarán el Impuesto en proporción al volumen de operaciones, si el sujeto pasivo opera en territorio común y vasco, siempre que el volumen total de operaciones exceda de 10 millones de euros, independientemente de su domicilio fiscal.

En el supuesto de inicio de actividad, para el cómputo de la cifra de 10 millones de euros, se atenderá al volumen de las operaciones realizado en el primer año natural. Si el primer

emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketetatik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko.

Europako Erkidego barruko ondasunen trafikoarekin zerikusia duten eragiketen ziozko zerga, aurreko paragrafoetan azaldutako eran ordainaraziko da, honako kasu hauetan izan ezik:

- Europako Erkidego barruan garraiobide berrien erosketen ziozko zerga, baldin eta erosketak egiten dituzten pertsona edo erakundeen eragiketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu beharretik erabat salbuetsita badaude edo zerga horren pean ez badaude, garraiobideak behin betiko matrikulatzen diren lurralde erkideko edo Euskadiko lurraldeko administrazioak ordainaraziko du.

- Jarraian azalduko diren eragiketak egiten direnean Estatuko Administrazioak edo lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak ordainaraziko du zerga, subjektu pasiboaren egoitza non dagoen, lurralde erkidean edo foru-lurraldean:

  a) Europako Erkidego barruko ondasunen eskuraketak, baldin eta eskuraketak zergapean badaude halaxe aukeratu delako edo zergari buruzko arauetan ezarritako muga kuantitatiboa gainditu delako, eta horiek egiten dituztenak zergari kenketa osoa edo partziala egiteko eskubiderik ez dakarten eragiketak soilik egiten dituzten subjektu pasiboak badira, edo enpresari nahiz profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoak badira.

  b) Europako Erkidego barruko ondasunen eskuraketak, baldin eta araubide erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian edo baliokidetasun-errekarguaren araubidean egiten badira.

Horrenbestez, eragiketak egiten diren lekua da Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko eskumena nork duen

año de actividad no coincidiera con el año natural, para el cómputo de la cifra anterior, las operaciones realizadas desde el inicio de las actividades se elevarán al año.

La exacción del Impuesto correspondiente a las operaciones relacionadas con el tráfico intracomunitario de bienes se realizará en los términos especificados anteriormente, salvo los supuestos siguientes:

- Por las adquisiciones intracomunitarias de medios de transporte nuevos efectuadas por personas físicas o jurídicas cuyas operaciones estén totalmente exentas o no sujetas al IVA, corresponderá a la Administración del territorio común o vasco en el que dichos medios de transporte se matriculen definitivamente.

- La exacción del impuesto se exigirá por la Administración del Estado o por la Diputación Foral competente por razón del territorio, según que el sujeto pasivo esté domiciliado en territorio común o foral, en los siguientes supuestos:

  a) Las adquisiciones intracomunitarias de bienes sujetas al Impuesto por opción o por haberse superado el límite cuantitativo establecido en la normativa reguladora del Impuesto, efectuadas por sujetos pasivos que realicen exclusivamente operaciones que no originan derecho a deducción total o parcial de aquél, o por personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales.

  b) Las adquisiciones intracomunitarias de bienes en régimen simplificado, régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca y régimen de recargo de equivalencia.

Por lo tanto, salvando el criterio simplificador del domicilio fiscal para los sujetos pasivos con un volumen total de operaciones no superior a

zehazteko irizpidea, salbuespenak izanik orotara 10 milioirainoko eragiketa-bolumena duten subjektu pasiboei egoitza fiskalaren irizpidea aplikatzea eta aipatutako kasu bereziak.

Ekonomia Itunak, 28. artikuluan, arau zehatzak ezartzen ditu eragiketak zer lurraldetan egiten diren zehazteko. Subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten du, baldin eta lurralde horretan gauzatzen baditu ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak. Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat hartuko dira eragiketa hauek:

a) Ondasun-emateak:

Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailearen esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailearen esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Ondasun higigarriei buruzko arau horrek salbuespenak ditu, eragiketak lurralde batean ala bestean egozteko modua egokitzeko:

- Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

- Ondasun-emateek industriako elementuen instalazioa barne hartzen badute, eta instalatzearen edo muntatzearen kostua kontraprestazio guztiaren % 15 baino handiagoa ez bada, Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin badira.

- Europako Erkidegoko beste estatu batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira, eta BEZari buruzko arautegian ezarritako baldintzak betetzen badira urrutiko salmentaren araubidea aplikatzeko, ondasun-ematea Euskadin egindakotzat joko da ondasunaren

10 millones de euros, y los supuestos específicos, el criterio que determina la competencia para la exacción del Impuesto sobre el Valor Añadido, es el lugar donde se realizan las operaciones.

El Concierto (artículo 28) establece reglas precisas para determinar cuando una operación se realiza en uno u otro territorio. Se entiende que un sujeto pasivo opera en un territorio cuando realiza en él entregas de bienes o prestaciones de servicios. Se entienden realizadas en los Territorios Históricos del País Vasco las siguientes operaciones:

a) Entregas de bienes:

Entrega de bienes muebles corporales, cuando la puesta a disposición del adquirente se realice desde dicho territorio. Si los bienes deben transportarse, la entrega se entenderá realizada en territorio vasco cuando los bienes se encuentren en dicho territorio al tiempo de iniciarse la expedición o el transporte. Esta regla sobre bienes muebles tiene excepciones que buscan una mejor adecuación en la imputación las operaciones a uno u otro territorio:

- Si se trata de bienes transformados por quien realiza la entrega, se entiende realizada la entrega en el País Vasco si se realizó en dicho territorio la última transformación de los bienes entregados.

- Si se trata de entregas con instalación de elementos industriales, y el coste de la instalación o montaje no excede del 15% del total de la contraprestación, se entiende realizada la entrega en el País Vasco, si se realizaron en dicho territorio los trabajos de preparación y fabricación.

- Si se trata de bienes que deben ser objeto de expedición o transporte iniciado en otro Estado miembro, y se cumplen los requisitos previstos en la normativa reguladora del IVA para la aplicación del régimen de ventas a distancia, la entrega se entenderá

garraioa Euskadiko lurraldean amaitzen bada.

Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak Euskadiko lurraldean baldin badaude.

Ondasun higiezinen emateak, ondasunok Euskadiko lurraldean badaude.

b) Zerbitzu-prestazioak:

Zerbitzu-prestazioak Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira, hain zuzen ere, lurralde horretatik ematen badira. Horren salbuespen izango dira beste lurralde batzuetan dauden ondasun higiezinekin lotutako zerbitzuak zein aseguru- eta kapitalizazio-eragiketak.

c) Hala ere, zenbait eragiketaren lotura-puntua subjektu pasiboaren egoitza fiskala da, irizpide sinplifikatzaile bati jarraituta. Euskadin egindakotzat hartuko dira egoitza fiskala lurralde horretan duten pertsonek egindako eragiketa hauek:

- Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek edo arrantzontzi-armadoreek egindako ekoizkin-emateak, ekoizkinak naturalak baldin badira, eraldatzeko prozesurik jasan ez baldin badute eta ustiategien edo armadoreen landaketa, ustiapen edo harrapaketetatik baldin badatoz zuzenean.

- Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

- Garraiobideen errentamendua.

Ez da inportazioaren zergapen-egitateari buruzko lotura-punturik ezartzen, Estatuaren eskumen esklusiboa baita.

Adierazitako arauei jarraituz, subjektu pasiboak administrazio bati baino gehiagori ordaindu beharko balie, zerga-likidazioen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko litzaieke, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazioen zenbatekoaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga alde batera

realizada en el País Vasco cuando finalice en él dicho transporte.

Las entregas realizadas por quienes producen la energía eléctrica, cuando los centros generadores de la misma radiquen en territorio vasco.

Las entregas de bienes inmuebles cuando los bienes estén situados en territorio vasco.

b) Prestaciones de servicios:

Las prestaciones de servicios se entenderán realizadas en territorio vasco, cuando se efectúen desde dicho territorio, salvo las prestaciones relacionadas con bienes inmuebles que radiquen en otro territorio y las operaciones de seguro y capitalización.

c) No obstante, existe una serie de operaciones en las que, siguiendo un criterio simplificador, el punto de conexión es el domicilio fiscal del sujeto pasivo. Se entienden realizadas en el País Vasco las siguientes operaciones efectuadas por personas cuyo domicilio fiscal se encuentra en dicho territorio:

- Entregas realizadas por explotaciones agrícolas, forestales, ganaderas o pesqueras y armadores de buques de pesca de productos naturales no sometidos a procesos de transformación, que procedan directamente de sus cultivos, explotaciones o capturas.

- Los servicios de transporte, incluso los de mudanza, remolque y grúa.

- Los arrendamientos de medios de transporte.

No se establece punto de conexión respecto del hecho imponible importaciones, puesto que éste es competencia exclusiva del Estado.

En el supuesto de que el sujeto pasivo deba tributar, conforme a las reglas expuestas, a más de una Administración, el resultado de las liquidaciones del Impuesto, se imputará en proporción al volumen de las contraprestaciones, excluido el IVA, correspondientes a las entregas de bienes y prestaciones de servicios gravadas y las

utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, egindako ondasun-emate eta zerbitzuei dagozkie, batzuetan kargatu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa-eskubidea dakartenak.

exentas con derecho a deducción que se hayan realizado en los territorios respectivos durante el año natural.

Egutegiko urte bakoitzean behin-behingoz aplikatu behar diren proportzioak aurreko urteko eragiketen arabera zehaztuko dira. Jarduera hasten den egutegiko urteko likidazio-aldietan behin-behinean aplikatu behar den proportzioa subjektu pasiboak berak kalkulatuko du, beraren ustez lurralde bakoitzean egingo dituen eragiketak kontuan hartuta; hala ere, azkenean erregularizazioa egingo da.

Las proporciones provisionalmente aplicables durante cada año natural serán las determinadas en función de las operaciones del año precedente. La proporción provisional aplicable en los períodos de liquidación del primer año natural del ejercicio de la actividad será fijada por el sujeto pasivo según su previsión de las operaciones a realizar en cada territorio, sin perjuicio de la regularización final correspondiente.

Hala ere, aurretiaz Ekonomia-itunean aurreikusitako Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari jakinarazita, posible izango da beste proportzio bat aplikatzea, aktiboak bategiten, bereizten edo ekartzen badira eta lurralde erkidean edo foru-lurraldean jardueraren bat hasi, amaitu, zabaldu edo murrizten denean, baldin eta proportzioa nabarmen aldarazten bada. Betiere, aldakuntza nabarmena dela uste izango da lurraldeetako edozeini aplikatu beharreko proportzioak % 15 puntu gora edo behera, gutxienez, egiten duenean.

No obstante, podrá aplicarse, previa comunicación a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa prevista en el Concierto, una proporción diferente en los casos de fusión, escisión y aportación de activos, así como de inicio, cese, ampliación o reducción de actividad en territorio común o foral que conlleve una variación significativa de la proporción. En todo caso, se considerará que la variación es significativa, cuando suponga la alteración de 15 o más puntos porcentuales en la proporción aplicable a cualquiera de los territorios.

Subjektu pasiboak, egutegiko urte bakoitzean zergaren gainean egindako azken aitorpen-likidazioan, behin betiko proportzioak kalkulatuko ditu –garai horretan egindako eragiketen arabera–, eta aurreko likidazio-aldietan administrazio bakoitzarekin egindako deklarazioak erregularizatu egingo ditu, dagokion moduan.

En la última declaración-liquidación del Impuesto correspondiente a cada año natural, el sujeto pasivo calculará las proporciones definitivas según las operaciones realizadas en dicho período, y practicará la consiguiente regularización de las declaraciones efectuadas en los anteriores períodos de liquidación con cada una de las Administraciones.

Subjektu pasiboek zergaren aitorpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena daukaten administrazioei. Aitorpen-likidazio horietan, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazioetako bakoitzari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Los sujetos pasivos presentarán las declaraciones-liquidaciones del Impuesto ante las Administraciones competentes para su exacción, en las que constarán, en todo caso, la proporción aplicable y las cuotas que resulten ante cada una de las Administraciones.

Dagozkion itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan.

Las devoluciones que procedan serán efectuadas por las respectivas Administraciones en la cuantía que a cada una le corresponda.

Zerga lurralde bakarrean ordaintzen duten subjektu pasiboen ikuskapena egitea lurralde horretako ikuskapen-zerbitzuei dagokie (29.

La inspección de los sujetos pasivos (artículo 29) que tributen sólo en un territorio corresponde a los servicios de Inspección de

artikulua). Subjektu pasiboak lurralde batean baino gehiagotan ordaintzen badu zerga, egoitza fiskalako lurraldeko ikuskapen-zerbitzuen lana izango da haren ikuskapena egitea. Arau horren salbuesten dira, egoitza fiskala EAEn izan arren, eragiketen gutxienez % 75 lurralde erkidean egiten dituzten subjektu pasiboak. Azken kasu horretan, Estatuko Administrazioari dagokio ikuskapenak egitea. Eta, alderantziz, egoitza fiskala erkide lurraldean izan arren, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eragiketen % 75 edo gehiago Euskadiko lurraldean egina badu –edo % 100, erakunde-talderako araubide berezian sartzen diren erakundeen kasuan–, lurraldearen arabera eskumena daukan foru-aldundiak egingo ditu egiaztapena eta ikerketa.

ese territorio. En caso de que los sujetos pasivos tributen en más de un territorio, la inspección la realizarán los servicios del territorio donde los sujetos pasivos tengan su domicilio fiscal. Excepción a esta regla son aquellos que, aun teniendo su domicilio fiscal en el País Vasco, realicen en territorio común al menos el 75% de sus operaciones, correspondiendo la inspección a la Administración del Estado y viceversa, aquellos que, aun teniendo su domicilio fiscal en territorio común, realicen en el País Vasco al menos el 75% de sus operaciones, o el 100% en el caso de entidades acogidas al régimen especial de grupos de entidades, correspondiendo la comprobación e inspección a la Diputación Foral por razón del territorio.

Ikuskatzeko eskumena ez duten tributu-administrazioek eskumen hori duen administrazioak egotzitako eragiketa-bolumenaren kalkuluari eragin diezaioketen eragiketa guztiak egiaztatu ahalko dituzte, eragiketok egin diren lekua edozein dela ere, tributu-administrazio eskudunari egindako jarduketa guztiak jakinarazteko ondorioetarako soilik, eta horrek ez dio ondorio ekonomikorik sortuko subjektu pasiboari.

Las Administraciones Tributarias que no ostenten la competencia inspectora podrán verificar, con independencia de dónde se entendieran realizadas, todas aquellas operaciones que pudieran afectar al cálculo del volumen de operaciones atribuido por aquellas, a los solos efectos de comunicar lo actuado a la Administración tributaria con competencia inspectora, sin que ello produzca efectos económicos para el sujeto pasivo.

Erakunde-talderako araubide berezian sartzen diren erakundeek arestian aipatutako arau orokorrak aplikatuz ordainduko dute zerga, espezialitate hauek zehaztuta:

Las entidades acogidas al régimen especial del grupo de entidades tributarán aplicando las reglas generales comentadas anteriormente, con las siguientes especialidades:

- Erakunde-taldetik kanpokotzat joko dira mendeko erakundeak, baldin eta haien ikuskapena egiteko ardura duten organoak, erakunde nagusiari aplikatu beharreko administraziokoak ez beste administrazio batekoak badira, foru-administrazioa nahiz administrazio erkidea izan.

- Se consideran excluidas del grupo las entidades dependientes cuya inspección se encuentre encomendada a una Administración, foral o común, distinta de la aplicable a la entidad dominante.

- Erakunde-taldea osatzen duten erakundeek, banako tributu-ordainketaren araubideari dagokion aitorpena aurkeztuko dute. Zergari buruzko arauak, eta, hala dagokionean, erakunde-talderako araubide bereziko arauak ere bai, banaka aplikatutakoan, hortik sortzen diren zenbatekoak zehaztuko dira aitorpen horretan. Taldea osatzen duten erakundeetako bakoitzak banaka kalkulatuko du

- Las entidades integrantes del grupo presentarán la declaración establecida para el régimen de tributación individual, conteniendo los importes que resulten de la aplicación individual de las normas reguladoras del impuesto, incluyendo, en su caso, las propias del régimen especial del grupo de entidades. Cada entidad integrante del grupo deberá calcular de forma

administrazioetako bakoitzari egotz dakiokeen aitorpenaren emaitza.

- Erakunde-taldeak bat eginda aurkeztutako aitorpen-likidazioetan kontuan hartu behar diren zenbatekoak, aurreko arau horri jarraituz kalkulatuta, foru-aldundietako bakoitzari edo Estatuko Administrazioari dagozkion emaitzen baturatik sortuko dira, baina ezin izango dira aldi berean tributu-administrazio bati baino gehiagori dagozkion zenbatekoak batu.

- Taldea osatzen duten erakundeek zein lurraldetan jarduten duten, lurralde horretako tributu-administrazioan bete beharko dituzte erakunde nagusiek beren berariazko betebeharrak.

- Erakunde-talderako araubide bereziak ez ditu inola ere aldatuko itun honetan zehaztutako arauak, ez eta, bereziki, lurraldeetako bakoitzean izaten diren eragiketen bolumena finkatzeko erabili beharreko arauak ere.

Europako Erkidegoaren barruan egindako emate eta eskuratzeen errekapitulazio-deklarazioak, hain zuzen ere, subjektu pasiboari egiaztapenak eta ikerketak egiteko eskumena daukan tributu-administrazioan aurkeztu beharko dira.

Aurreko paragrafoetan agindutakoa eragotzi gabe, baldin eta beren jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak egin ohi diren unearen aurreko likidazio-aldietan subjektu pasiboak tributu-administrazio baten ordainarazpen-eskumenaren mendean egon badira eta beste administrazio baten mendean ondoko likidazio-aldietan, edo baldin eta likidazio-aldi horietan tributuen ordainketaren proportzioak % 40 gora edo behera, gutxienez, egiten badu administrazio bati edo besteari –erkidea edo forala– ordaintzean, itzulitako kuoten erregularizazioa egingo da, apartatu honetan agindutako eran.

Horrela, subjektu pasiboek beren jarduerari dagozkion ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak egiten hasi aurreko likidazio-aldiei dagozkien administrazioetako tributazio-

individual el resultado de la declaración imputable a cada Administración.

- Los importes a computar en las declaraciones-liquidaciones agregadas del grupo de entidades serán la suma de los resultados calculados de forma individual correspondientes a cada una de las Diputaciones Forales o a la Administración del Estado, sin que quepa la agregación de cantidades que correspondan a Administraciones tributarias distintas.

- Las obligaciones específicas de las entidades dominantes habrán de ser cumplidas ante las Administraciones tributarias en cuyo territorio operen las entidades que integren el grupo.

- Este régimen especial no alterará en ningún caso las reglas previstas en el Concierto y en particular las aplicables para determinar el volumen de operaciones en cada territorio.

En cuanto a las declaraciones recapitulativas de entregas y adquisiciones intracomunitarias deberán presentarse ante la Administración tributaria que tenga atribuida la competencia para la comprobación e investigación de los sujetos pasivos.

Las Administraciones Públicas del País Vasco obtienen buena parte de los recursos necesarios para financiar su actividad mediante la exacción de los tributos que conforman su sistema tributario propio. Además, obtienen otros ingresos procedentes de otras fuentes de financiación: acuerdos o convenios con otras administraciones públicas, fondos de la Unión Europea o ingresos financieros y patrimoniales. Por úlltimo, pueden recurrir al endeudamiento,

dauden mugen barruan.

Bestera, Euskal Autonomia Erkidegoak honela banatzen ditu eskuratutako baliabideak: zati bat EAEko gastu-konpromisoak betetzeko erabiltzen du, eta EAEk bereganatu gabeko eskumenetako gaietan Estatuak egindako gastuak finantzatzen laguntzen du.

Foru-finantziazioko sistema horrek ez du zerikusirik gainerako autonomia-erkidegoetako sistemarekin, ezta inguruko herrialdeetan (batzuk egitura federala izan arren) erabiltzen direnekin ere.

Aurreko kapituluan, zerga itunduek buruzko arauak emateko eta ordainarazpenak egiteko gaitasunen lotuneak azaldu dira, zerga horiexek baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen baliabide-iturri nagusia. Kapitulu honek Estatua eta Euskadi arteko finantza-harremanak aztertuko ditu.

dentro de los límites especificados legalmente.

Como contrapunto, el País Vasco destina una parte de los recursos obtenidos a los compromisos de gasto derivados del ejercicio de sus competencias y contribuye a la financiación de los gastos que el Estado realiza en aquellas materias cuya competencia no ha sido transferida.

La filosofía que subyace en el sistema foral de financiación es bien diferente a la del sistema de las Comunidades Autónomas de régimen común, e incluso a la de otros sistemas existentes en países de nuestro entorno, algunos con estructura federal.

En el capítulo anterior se han expuesto los puntos de conexión de la capacidad normativa y exaccionadora de los tributos concertados, que constituyen la fuente principal de recursos del conjunto de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En este capítulo se analizan las relaciones financieras entre el Estado y el País Vasco.

2. PRINTZIPIO OROKORRAK

2002ko Ekonomia Itunak 48. artikulu berri bat jasotzen du, "Finantza Harremanak" izeneko II. kapituluan. Artikulu horrek arautzen du hauek izango direla Estatuaren eta EAEren arteko finantza-harremanetako printzipio orokorrak:

- Euskadiko erakundeek euren eskumenak garatu eta erabiltzeko autonomia izango dute, zergen eta finantzen eremuetan.

- Elkartasunari eutsiko zaio, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan ezarritako moduan.

- Aurrekontu-egonkortasunaren arloan, Euskadiko erakundeak Estatuarekin koordinatuko dira eta berarekin lankidetzan arituko dira.

- Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren kargak direla-eta, Euskadik kontribuzioa egingo du, Ekonomia Itun horretan zehaztu den eran.

- Toki-erakundeen eremuan Estatuak une

2. PRINCIPIOS GENERALES

El Concierto Económico en su artículo 48, dentro del Capítulo II "De las Relaciones Financieras", establece los principios generales que regirán las relaciones financieras entre el Estado y el País Vasco:

- Autonomía fiscal y financiera de las Instituciones del País Vasco para el desarrollo y ejecución de sus competencias.

- Respeto de la solidaridad en los términos prevenidos en la Constitución y en el Estatuto de Autonomía.

- Coordinación y colaboración con el Estado en materia de estabilidad presupuestaria.

- Contribución del País Vasco a las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma, en la forma que se determina en el Concierto Económico.

- Las facultades de tutela financiera que en

bakoitzean egikaritzen dituen finantza-tutoretzako ahalmenak Euskadiko erakunde eskudunei dagozkie; horrek ez du esan nahi, inola ere, Euskadiko toki-erakundeen autonomia-araubide erkidea duten toki-erakundeena baino txikiagoa izango denik.

cada momento desempeñe el Estado en materia de Entidades Locales corresponderán a las Instituciones competentes del País Vasco, sin que ello pueda significar, en modo alguno, un nivel de autonomía de las Entidades Locales Vascas inferior al que tengan las de régimen común.

3. ESTATUARI ORDAINDU BEHARREKO KUPOA

3. EL CUPO A PAGAR AL ESTADO

3.a. Kontzeptua

3.a. Concepto

Ekonomia Itunak Autonomia Estatutuak bezalaxe definitzen du kupoa: Euskadik Estatuari egingo dion ekarpena kupo orokor bat izango da —lurralde historiko bakoitzaren ekarpenez osatua—, EAEk beregain hartzen ez dituen kargen ordaina emateko Estatuari (49. artikulua).

El Concierto Económico transcribe la definición del cupo contenida en el Estatuto de Autonomía: la aportación del País Vasco al Estado consistirá en un cupo global, integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios Históricos, como contribución a todas las cargas del Estado que no asuma la Comunidad Autónoma (artículo 49).

50. artikuluan xedatzen denez, bost urtean behin, Gorte Nagusietan bozkatutako lege baten bidez, eta aldez aurretik Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak akordioa lortuta, erabakiko da bosturtekoan aginduko duen kupoa zehazteko metodologia. Era berean, abiaburu-urteko kupoa ere onetsiko da. Ondorengo urte bakoitzean, Bosturteko Legean onartutako metodologia aplikatuta eguneratuko da kupoa, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onartuko du.

Según se dispone en su artículo 50, cada cinco años, mediante Ley votada por las Cortes Generales, y previo acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, se procederá a determinar la metodología de señalamiento del cupo que ha de regir en el quinquenio, así como a aprobar el cupo del año base. El cupo de los años siguientes se actualiza por aplicación de la metodología contenida en la ley quinquenal y es aprobado por la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Kupoa zehazteko metodologiaren printzipioak aldatzeko aukera izango da Bosturteko Legean, unean uneko egoerak eta hura aplikatzean izandako esperientziak hala egitea gomendatzen badute. Horrela, bermatu egiten da Itunaren sistemako printzipio orokorrak errealitate ekonomikoaren bilakaerara egokituko direla.

La ley quinquenal podrá modificar los principios que configuran la metodología de determinación del cupo cuando las circunstancias y la experiencia en su aplicación así lo aconsejen, garantizándose la adecuación de los principios generales del sistema de Concierto a la evolución de la realidad económica.

52. artikuluan finkatzen da honako hauek direla Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko kargak: Autonomia Erkidegoak horiez baliatzeko benetan bereganatu ez dituen eskumenei dagozkienak.

En el artículo 52 se definen las cargas del Estado no asumidas por el País Vasco como las que correspondan a competencias cuyo ejercicio no haya sido asumido efectivamente por la Comunidad Autónoma.

Karga horien zenbateko osoa zein den zehazteko, eragiketa hau egingo da: kasuan kasuko eskualdaketarako dekretuan finkatutako transferentziak eraginkor diren egunetik Autonomia Erkidegoak

Para la determinación del importe total de estas cargas no asumidas se deduce del total de gastos del Presupuesto del Estado, la asignación presupuestaria íntegra que, a nivel estatal, corresponda a las competencias

bereganatutako eskumenei Estatu mailan dagokien aurrekontuko zati osoa kenduko zaio Estatuko aurrekontuaren gastu osoari.

asumidas por la Comunidad Autónoma, desde la fecha de efectividad de la transferencia fijada en los correspondientes Decretos de Traspaso.

Besteak beste, bereganatu gabeko kargatzat zehazten dira:

Entre otras, se especifican como cargas no asumidas:

- Estatuaren Aurrekontu Orokorretan Lurralde-arteko Konpentsazio Funtserako izendatutako kopuruak

- las cantidades asignadas en los Presupuestos Generales del Estado al Fondo de Compensación Interterritorial

- Estatuak erakunde publikoentzat egindako transferentziak edo erakunde horiei emandako dirulaguntzak, baldin eta erakunde horiek dituzten eskumenak ez baditu EAEkoak bereganatu

- las transferencias o subvenciones que haga el Estado en favor de Entes públicos en la medida en que las competencias desempeñadas por los mismos no estén asumidas

- Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak.

- los intereses y cuotas de amortización de las deudas del Estado.

Bereganatu gabeko kargengatik lurralde historikoei dagokien zenbatekoaren egozpena egiteko, 57. artikuluko egozpen-indizea aplikatuko da. Indize hori, batik bat, lurralde historikoen errenta erlatiboari erreparatuta zehazten da. Kupoaren Bosturteko Legean adieraziko da indize hori, eta hura indarrean den bitartean aplikatuko da.

La imputación a los Territorios Históricos de la parte correspondiente por cargas no asumidas se efectúa por aplicación del índice de imputación (artículo 57), determinado básicamente en función de la renta relativa de los Territorios Históricos. Este índice se señala en la ley quinquenal de Cupo y se aplicará durante la vigencia de ésta.

Bestalde, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren diru-sarrerengatiko egozpenak hobetzeko eta Alkoholaren eta Edari Eratorrien, Tarteko Ekoizkinen, Garagardoaren, Hidrokarburoen eta Tabako Moten Fabrikazioaren gaineko Zerga bereziengatik biltzen diren sarreren egozpena hobetzeko, Euskadiko kontsumo-indizea eta zerga-bilketarako ahalbidearen indizea elkarri doitzeko mekanismoa ezartzen da (53. eta 54. artikuluak, hurrenez hurren).

Por otra parte, con el objeto de perfeccionar las imputaciones de ingresos por el Impuesto sobre el Valor Añadido y por los Impuestos Especiales de Fabricación sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas, Productos Intermedios, Cerveza, Hidrocarburos y Labores del Tabaco, se establecen los mecanismos de ajuste entre el índice de consumo y el índice de capacidad recaudatoria del País Vasco para cada uno de estos impuestos (artículos 53 y 54, respectivamente).

Era berean, 55. artikuluan, zergapetze zuzena hobetzeko doiketa bat aurreikusten da, eta Kupoaren Bosturteko Legeak beste doitze-mekanismo batzuk ezar ditzake, Estatuari eta EAEri egozgarri zaizkien diru-sarrera publikoen zenbatespena hobetzeko.

Asimismo, en el artículo 55 se contempla un ajuste para perfeccionar la imposición directa, pudiendo establecerse en la ley quinquenal de Cupo otros mecanismos de ajuste que puedan perfeccionar la estimación de los ingresos públicos imputables al País Vasco y al resto del Estado.

56. artikuluan, kupoan aplikatu beharreko konpentsazioak zerrendatzen dira, honako kontzeptu hauetan:

En el artículo 56 se enumeran las compensaciones a aplicar en el cupo por los siguientes conceptos:

- Itundu gabeko zergen zati egozgarria.

- La parte imputable de los tributos no

- Zerga-izaerarik ez duten aurrekontuko diru-sarreren zati egozgarria.

- Estatuaren Aurrekontu Orokorrek izan dezaketen defizitaren zati egozgarria. Superabita izanez gero, kontrara jardungo da.

Bereganatutako eskumenak aldatzeak behin-behineko kupoan duen eragina ere arautzen du Ekonomia Itunak (58. artikulua).

59. artikuluan zehazten da Estatuaren Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzerako bildutako zenbakietatik abiatuta behin-behingoz finkatutako kupoa eta bidezkoak diren konpentsazioak likidatu egin beharko direla, kasuan kasuko ekitaldia ixten denean.

Kupoa Estatuko Ogasunean sartzeari dagokionez, hiru epe ezartzen dira: urte bakoitzeko maiatzean, irailean eta abenduan, hain zuzen ere.

Horrez gain, Laugarren Xedapen Iragankorrak Arabako Foru Aldundiaren aldeko konpentsazio bat ere aurreikusten du, Euskadiko Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko eskumenak garatzen eta zerbitzuak egiten diharduen bitartean, araubide erkideko probintzietan Estatuak egiten baititu lan horiek.

3.b. Kupoaren bosturteko legeak

Kupoaren bosturteko legeek aldi bakoitzean aplikatu beharreko metodologia onartu dute, eta lege horiek bere egin zituzten Ekonomia Itunak araututako oinarri orokorrak. Aprobatutakoaren arabera, lehenik, bosturteko bakoitzeko abiaburu-urteko kupoa kalkulatzen du, eta horien zenbatekoa eguneratzen da, eguneratze-indize bat aplikatuz. Itundutako zergengatiko diru-sarreren igoera adierazten du indize horrek, baina autonomia-erkidegoei laga daitezkeenak (Estatuko Sarreren Aurrekontuko I. eta II. kapituluan adierazitakoak) aintzat hartu gabe, kupoari dagokion ekitaldiaren eta abiaburu-urtearen arteko diferentziari erreparatuta.

concertados.

- La parte imputable de los ingresos presupuestarios de naturaleza no tributaria.

- La parte imputable del déficit que presenten los Presupuestos Generales del Estado. Si existiera superávit se operará en sentido inverso.

Del mismo modo, el Concierto contempla los efectos sobre el cupo provisional por la variación en las competencias asumidas (artículo 58).

En el artículo 59 se especifica que el cupo y las compensaciones que procedan, fijados provisionalmente en base a las cifras contenidas en los Presupuestos Generales del Estado para cada ejercicio, serán objeto de liquidación una vez cerrado el ejercicio correspondiente.

En cuanto al ingreso del cupo en la Hacienda del Estado, se establecen tres plazos, en los meses de mayo, septiembre y diciembre de cada año.

Adicionalmente, la Disposición Transitoria cuarta prevé una compensación a favor de la Diputación Foral de Álava, por el desarrollo de competencias y la prestación de servicios no asumidos por la Comunidad Autónoma del País Vasco y que en provincias de régimen común corresponden al Estado.

3.b. Las leyes quinquenales de Cupo

Las leyes quinquenales de cupo han aprobado la metodología a aplicar en los distintos períodos, recogiendo las bases establecidas con carácter general en el Concierto Económico. Según lo aprobado, se fija el cupo del año base de cada quinquenio y se actualiza para los años restantes por aplicación de un índice de actualización. Este índice se define como el incremento de los ingresos por tributos concertados, excluidos los cedidos a las Comunidades Autónomas, que figuren en los Capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado, entre el ejercicio al que se refiere el cupo y el año base.

Kupoen zehaztapen automatikoak salbuespen nagusitzat du eskumen berriak bereganatzeak dituen ondorioak.

La determinación automática de los cupos tiene como principal excepción los efectos derivados de la asunción de nuevas competencias.

Kupoaren bosturteko legeek, era berean, arautzen dute behin-behineko kupoen likidazioa, eta, eguneratzeetan erabilitako aldagaien egiazko balioak jakin ondoren, hura behin betiko kalkulatu beharra.

Las Leyes Quinquenales de Cupo prevén también la liquidación de los cupos provisionales y su cálculo definitivo, una vez conocidos los valores reales de las variables utilizadas en la actualización.

Era berean, Kupoaren Bosturteko Legeek unean-unean jaso dituzte Balio Erantsiaren gainerako Zergaren eta Fabrikazioko Zerga Berezien diru-bilketei dagozkien doikuntzak.

Asimismo, las Leyes Quinquenales de Cupo han recogido en cada momento los parámetros a aplicar en el Ajuste a la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y en los Ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación.

2002ko Ekonomia Ituna onartu zenetik, honako hiru lege hauek onartu dira:

Desde la aprobación del Concierto Económico de 2002 se han aprobado tres leyes quinquenales:

- 3/2002 Legea, maiatzaren 23koa, EAEko kupoa 2002-2006 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.
- Ley 13/2002, de 23 de mayo, por la que se aprueba la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2002-2006.
- 29/2007 Legea, urriaren 25ekoa, EAEko kupoa 2007-2011 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.
- Ley 29/2007, de 25 de octubre, por la que se aprueba la metodología de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2007-2011.
- 11/2017 Legea, abenduaren 28koa, EAEko kupoa 2017-2021 bosturtekoan zehazteko metodologia onartzen duena.
- Ley 11/2017, de 28 de diciembre, por la que se aprueba la metodologia de determinación del Cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021.

2009an onartu zen finantzaketa-sistema berriak eragin handia izan zuen Estatuko Aurrekontu Orokorretako diru-sarreretan nahiz gastuetan; ondorioz, bi administrazioen kalkuluetan ezberdintasunak sortu ziren, baina ez zen onartu 2012-2016 bosturtekorako inolako lege espezifikorik.

Para el quinquenio 2012-2016 no se aprobó ninguna ley específica por las divergencias en los cálculos que surgieron entre ambas administraciones a raíz de la aprobación de un nuevo sistema de financiación en 2009 con un fuerte impacto tanto en los ingresos como en los gastos de los Presupuestos Generales del Estado.

Akordiorik ez zegoenez, euskal erakundeek kupoak kalkulatzea erabaki zuten, inolako berrikuspenik egin gabe. Hala ere, Estatuak berrikuspena aplikatu zien 2007ko tributu itunduen bidezko diru-sarrerei, 2011ko ekitaldietarako eta hurrengoetarako eguneratze-indizea kalkulatze aldera, eta Euskal Autonomia Erkidegoak BEZaren egokitzapenari dagozkion zenbatekoen emaitzarekin kalkulatutako indizearekiko aldea atxiki zuen.

Ante la falta de acuerdo, la posición de las instituciones vascas fue calcular los cupos sin realizar ninguna revisión. Sin embargo, el Estado fue aplicando una revisión a los ingresos por tributos concertados de 2007, a efectos del cálculo del índice de actualización para los ejercicios 2011 en adelante, y retuvo la diferencia con el calculado por el País Vasco del resultado de los importes correspondientes al Ajuste IVA.

Desberdintasun horiek behin betiko ebatzi ziren, 2017ko maiatzaren 17ko eta 2017ko

Estas divergencias se resolvieron definitivamente en virtud de los acuerdos

uztailaren 19ko Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoetan onartu ziren akordioen arabera. Honako hau diote:

- 2007-2011 ekitaldiei zegozkien kupo likidoak eta konpentsazio finantzarioak onartu ziren, baita 2012-2016 ekitaldietarako emaitzak ere, urriaren 25eko 29/2007 Legeak onartutako metodologian aurreikusitako luzapen-erregimena aplikatuta.

Ekonomia Ituneko Batzorde Misto horiek onartutako akordioei jarraikiz, EAEri urtero zegokion finantzaketa (esaterako, Autonomiarako eta Mendetasunarentzako Arretarako Sistema eratzeko, Hezkuntzako Lege Organikoa garatzeko eta 2005eko irailaren 10eko Presidenteen Konferentzian osasuna finantzatzeko akordioetarako, 2007. urtetik kupoaren minorazio gisa gauzatu zirenak) oinarri-urteko kupoa berrikusita hartutako kargen barruan sartu zen.

- Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren eremuko programa eta jarduketa publikoei dagokien kostuaren 2011-2016 ekitaldietarako behin betiko balorazioa onartu zen, eta erabaki zen 2017ko maiatzaren 31 baino lehen erregularizatuko zirela ordura arte egindako fluxu finantzarioak.

-Ekonomi Itunaren Batzorde Mistoaren 2017ko maiatzaren 17ko bigarren akordioaren bidez, jada kupo eta finantza konpentsazioen egindako diru-sarrerekiko aldearengatik ateratzen ziren zenbatekoak 2017-2021 epealdian erregularizatuko zirela erabaki zen.

3.c. Kupoaren 2017-2021 Bosturtekorako Legea

Abenduaren 28ko 11/2017 Legearen bidez, Ekonomia Itunaren Bitariko Batzordearen 2017ko uztailaren 19ko Erabakia onartu zen, eta horrekin zehaztu zen Euskal Autonomia Erkidegoko kupoa seinalatzeko metodologia 2017-2021 bosturterako.

Kupoa kalkulatzeko metodologiari dagokionez, aurreko bosturtekoetako sistematikari eusten zaio, hau da, lehenengo

adoptados en las Comisiones Mixtas del Concierto Económico de 17 de mayo de 2017 y de 19 de julio de 2017, del siguiente tenor:

-Se aprobaron los cupos líquidos y las compensaciones financieras correspondientes a los ejercicios 2007-2011 así como los resultantes para los ejercicios 2012-2016, por aplicación del régimen de prórroga previsto en la metodología aprobada por la Ley 29/2007, de 25 de octubre.

En cumplimiento de los acuerdos adoptados por las Comisiones Mixtas del Concierto Económico citadas, la financiación que anualmente correspondía a la CAPV por materias como la configuración del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, el desarrollo de la Ley Orgánica de Educación y las acordadas en la Conferencia de Presidentes celebrada el 10 de septiembre de 2005 para la financiación de la sanidad, que se habían instrumentado desde 2007 como minoración en el Cupo, se integró dentro de las cargas asumidas mediante revisión del Cupo del año base.

-Se aprobó la valoración definitiva para los ejercicios 2011-2016 del coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional traspasados al País Vasco por Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre, acordando que con anterioridad a 31 de mayo de 2017 se regularizaran los flujos financieros efectuados hasta entonces.

-El Acuerdo Segundo de la Comisión Mixta del Concierto Económico de 17 de mayo estableció que los importes que resultaran por diferencia con los ingresos ya realizados en concepto de cupo y compensaciones financieras serían objeto de regularización en el periodo 2017-2021.

3.c. La Ley Quinquenal de Cupo 2017-2021

Por la Ley 11/2017, de 28 de diciembre, se aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económicio de 19 de julio de 2017, que determinó la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021.

La metodología de cálculo del cupo para el quinquenio 2017-2021 mantiene la sistemática de los quinquenios anteriores,

abiaburu-urteko kupoa zehazten da, eta gero hurrengo ekitaldietan hura eguneratu egiten da.

Salbuespen gisa, legearen indarraldia behin amaiturik oraindik ez bada hurrengo ekitaldietarako beste legerik onartu, bere osoan aplikatuko da (amaierako lehen xedapena).

Testua hainbat zati bereizitan egituratzen da, eta ondoren aztertzen dira.

3.c.1. Abiaburu-urteko kupo likidoa

2017-2021 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa EAEk bereganatu ez dituen kargen zenbateko osoari egozpen-indizea aplikatuz eta dagozkion doiketa eta konpentsazioak eginez kalkulatuko da .

Horrenbestez, hauek dira kupoa kalkulatzeko egin behar diren eragiketak:

1. Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen Estatuko kargak zehaztu behar dira.

Onartutako kupoaren metodologiak Ekonomia Itunak araututakoa bere eginez, Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu ez dituen kargen (CNA) definizioa jasotzen du: Euskal Autonomia Erkidegoak horiez baliatzeko benetan bereganatu ez dituen eskumenei dagozkienak. Horrenbestez, kargen zenbatekoa zehazteko, Estatuaren Gastu Aurrekontuaren (PGE) zenbateko osoari kendu egin behar zaio EAEk bere egindako eskumenei edo kargei (CA) dagozkien aurrekontu-esleipenak, Estatu osoan baloratutakoak.

Bi zenbateko horien arteko aldea izango da EAEk bereganatu gabeko kargen zenbatekoa, oinarrizko kopurua kupo likidoa kalkulatzeko.

2. Egozpen-indizea aplikatu behar zaie bereganatu gabeko kargei.

Lurralde Historikoei dagozkien egozpenak egiteko, egozpen-indizeak (i) aplikatuko dira. Indize horiek, batik bat, Lurralde Historikoek Estatuarekiko duten errenta erlatiboari erreparatuta zehazten dira.

consistente en determinar el cupo del año base y su posterior actualización para los ejercicios siguientes.

Además, contempla la posibilidad excepcional de prórroga, en caso de no promulgarse una nueva ley una vez finalizado su plazo de vigencia (disposición final primera de la metodología).

El texto, se estructura en varias partes diferenciadas que se analizan a continuación.

3.c.1. Cupo líquido del año base

El cupo líquido del año base del quinquenio 2017-2021 se determinará por la aplicación del índice de imputación al importe total de las cargas no asumidas por la Comunidad Autónoma y mediante la práctica de los correspondientes ajustes y compensaciones.

Por tanto, la operativa para el cálculo del cupo es la siguiente:

1. Determinación de las cargas del Estado no asumidas por la Comunidad Autónoma.

La metodología del cupo aprobada recoge el contenido del Concierto Económico, donde se definen las cargas no asumidas (CNA) como aquellas correspondientes a competencias cuyo ejercicio no ha sido asumido efectivamente por la Comunidad Autónoma. Para determinar su importe se deducirá del total de gastos del Presupuesto del Estado (PGE) la asignación presupuestaria que corresponda a las competencias asumidas por el País Vasco o cargas asumidas (CA), valoradas a nivel estatal.

La diferencia entre ambos importes constituirán las cargas no asumidas por el País Vasco, base de cálculo para la determinación del cupo líquido.

2. Aplicación del índice de imputación a las cargas no asumidas.

La asignación a los Territorios Históricos de la parte correspondiente a las cargas no asumidas se efectuará por aplicación del índice de imputación (i), determinado básicamente en función de la renta de los Territorios Históricos en relación con el Estado.

Egozpen-indizea, 2017-2021 bosturtekorako, % 6,24koa da; ondorioz, eutsi egin zaio 1981etik aplikatutako indizeari.

El índice de imputación para el quinquenio 2017-2021 es el 6,24%, manteniéndose, por tanto, el índice aplicado desde 1981.

KUPOA / CUPO = i CNA
KUPOA / CUPO = i (PGE - CA)

3. Doiketak.

Doiketen xedea da zuzeneko eta zeharkako zergengatiko egozpena hobetzea. Hauek egiten dira:

- Estatuko Administrazioak bere funtzionarioei eta enplegatuei emandako ordainsarie aktiboei eta pasiboei buruzko atxikipenei dagozkien doikuntzak, erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako langileenak salbu (Ekonomia Ituneko 7. bi artikulua).

- Erakunde publikoek jaulkitako zor eta jesapenetako interes eta bestelako kontraprestazioei dagozkienak (9. lehenengoa, bat, b artikulua).

- Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion doiketa.

- Fabrikazioko Zerga Bereziei dagokien doiketa.

3. Ajustes.

Los ajustes tienen por objeto perfeccionar la imputación de ingresos por impuestos directos e indirectos, contemplándose los siguientes:

- Por retenciones relativas a las retribuciones, tanto activas como pasivas, satisfechas por la Administración del Estado a sus funcionarios y empleados, con excepción de los de Organismos Autónomos y Entidades públicas empresariales (artículo 7. Dos del Concierto Económico).

- Por intereses y demás contraprestaciones de las deudas y empréstitos emitidos por las Instituciones Públicas del resto del Estado (artículo 9. Uno. Primera. b del Concierto Económico).

- Por el Impuesto sobre Valor Añadido.

- Por los Impuestos Especiales de Fabricación.

4. Konpentsazioak.

Estatuko Ogasunari dagozkion sarrera-kontzeptuak jasotzen dituzte Estatuko aurrekontu orokorrek; hau da, ez dituzte jasotzen foru-ogasunek bildurako diru-sarrerak. Horrenbestez, kupoa Estatuko gastuen aurrekontuarekiko bereganatu gabeko kargei erreparatuta zehazten dela ikusita, itundu gabeko sarrerei (INC) dagozkien konpentsazioak egin behar dira.

Ekonomia Itunak araututakoa jasotzen du Kupoaren Bosturtekorako Legeak, hor adierazten baitira konpentsazioengatik kendu beharreko kontzeptuak. Itunaren zenbatekoa, egozpen-indizea aplikatuta zehazten da:

a) Itundu gabeko zergen zati egozgarria.

4. Compensaciones.

En los Presupuestos Generales del Estado se incluyen conceptos de ingreso que sólo corresponden a la Hacienda del Estado. En consecuencia, dado que el cupo se determina sobre las cargas no asumidas del Presupuesto de Gastos del Estado, es preciso efectuar las compensaciones por la parte imputable al País Vasco en dichos ingresos (INC).

La Ley Quinquenal de Cupo recoge lo dispuesto en el Concierto Económico, en el que se concretan los conceptos a deducir por compensaciones. Su importe se determina por aplicación del índice de imputación a:

a) La parte imputable de los tributos no concertados.

b) Zerga-izaerarik ez duten aurrekontuko diru-sarreren zati egozgarria.

c) Estatuaren Aurrekontu Orokorrek izan dezaketen defizitaren zati egozgarria.

Konpentsaziogai da kupoan, era berean, Ekonomia Ituneko Laugarren Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoaren ondorio den Arabako Foru Aldundiaren aldeko zenbatekoa.

5. Kupo likidoa kalkulatzea.

2017ko ekitaldia finkatu da bosturtekorako abiaburu-urte gisa. Kupo likidoaren kalkulua, aurrez adierazitako a), b) eta c) puntuetako konpentsazioak murriztuta ateratzen da.

b) La parte imputable de los ingresos presupuestarios de naturaleza no tributaria.

c) La parte imputable del déficit que presenten los Presupuestos Generales del Estado.

También es objeto de compensación en el cupo el importe a favor de la Diputación Foral de Álava derivado de lo previsto en la Disposición Transitoria Cuarta del Concierto Económico.

5. Cálculo del cupo líquido.

Se establece el ejercicio 2017 como año base del quinquenio. El cupo líquido es el resultado de deducir al Cupo las compensaciones a), b) y c) antes expuestas.

KUPO LIKIDOA / CUPO LÍQUIDO = i CNA - i INC

KUPO LIKIDOA / CUPO LÍQUIDO = i (PGE - CA - INC)

Behin kupo likidoa zehaztuz gero, Ekonomia Ituneko Laugarren Xedapen Iragankorrean araututako konpentsazioen zenbatekoa gutxitu egingo da.

Una vez determinado el cupo líquido, se minora en el importe derivado de la Disposición Transitoria Cuarta del Concierto Económico.

3.c.2. Bosturtekoaren gainerako urteetako kupo likidoa eta behin betiko likidazioa

Bosturtekok hurrengo urteetarako, abiaburu-urteko kupo likidoaren gainean eguneratze-indize bat aplikatzen da, eta honela definitzen da: itundutako zergengatiko diru-sarreren igoera adierazten du, baina autonomia-erkidegoei zergen igoera (Estatuko Sarreren Aurrekontuko I. eta II. kapituluan adierazitakoak) aintzat hartu gabe, kupo likidoari dagokion ekitaldiko zenbatekoaren eta abiaburu-urteko sarreren kopuruaren arteko diferentziari erreparatuta.

Aintzat hartu beharko dira bereganaturiko eskumenak aldatzearen ondorioak hurrengo ekitaldietako kupoetan.

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen berriak beregain hartzen baditu, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa berrikusiko da, eta kupo horri ondoko kopuru hau kenduko zaio: Zatikizuna: eskualdaketaren garaiko ekitaldiko estatu-mailako urteko kostu osoa: zatitzailea: legean

3.c.2. El Cupo líquido de los restantes años del quinquenio y liquidación definitiva

Para los años siguientes del quinquenio se aplica sobre el cupo líquido del año base un índice de actualización que se define como el incremento experimentado en la previsión de ingresos por tributos concertados, excluidos los cedidos en su totalidad a las Comunidades Autónomas, que figure en los Capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado, entre el ejercicio al que se refiere el cupo líquido y el año base del quinquenio.

Para los cupos de los ejercicios siguientes deberán considerarse los efectos sobre el cupo de la asunción de nuevas competencias.

Así, en el caso de que la Comunidad Autónoma asumiera nuevas competencias se procederá a revisar el cupo líquido del año base del quinquenio, minorándolo en el importe que resulte de aplicar el índice de imputación al coste total anual a nivel estatal asociado al traspaso en el ejercicio en que

arautzen den eguneratze-indizea; zatidurari lege horretako egozpen-indizea kenduko zaio.

Abiaburu-urteko kupo likido berrikusia erabiliko da eskualdaketaren ekitaldiko, kupoaren eraginkortasunaren data eta hurrengo ekitaldietako kupoa zehazteko.

Bereganatutako eskumenen bat utziko balu Euskal Autonomia Erkidegoak, azalduriko prozedura bera jarraituko litzateke, baina alderantziz.

2017-2021 aldirako Kupoaren Bosturtekorako Legeak, 11.4 artikuluan, hau ezartzen du: datozen bost urteetan, legegintza-neurri berriak, interes orokorreko erabakiak edota autonomia-erkidegoei betearaztea dagokien erakunde arteko akordioak direla eta, Estatuak finantzazio-konpromiso berriak hartzen baditu, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bilduko da eta Euskadiren finantza-partaidetza aztertuko eta zehaztuko du.

12. artikuluan xedatzen denaren arabera, behin-behineko kupoak behin betiko kitatzeko, honela egingo da: Estatuak, bai kupoaren ekitaldian, bai bosturtekoaren abiaburu-urtean, benetan lortu duen diru-bilketa likidoari eguneratze-indizea ezarriz ateratzen den benetako balioa ezarriko zaio. Salbuespenez, bosturtekoaren abiaburu-urteari dagokion kupo likidoa behin betiko kitatzeko, honela egiten da: Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urtean benetan lortu duen diru-bilketa likidoari benetako eguneratze-indizea aplikatuz ateratzen den benetako balioa alderatuko da, Estatuko diru-sarreren aurrekontuan ekitaldi berean agertzen den pareko diru-bilketaren aurreikuspenarekin.

Kupo likidoaren ekitaldiaren hurrengo maiatzean egiten da behin betiko kitapena. Behin-behinerako finkatu ziren kupo likidoarekin eta konpentsazioekin sortutako diferentziak ere maiatzean bertan erregularizatzen dira.

3.c.3. Arau erkideak

Kupoaren Bosturtekorako Metodologiaren IV.

éste se produzca, dividido por el índice de actualización respecto al año base.

El cupo líquido del año base así revisado será el que se utilice para la determinación del cupo del ejercicio en que se produce el traspaso, teniendo en cuenta la fecha de su efectividad, y para los ejercicios posteriores.

El mecanismo descrito se aplicará de manera inversa en el caso de que la Comunidad Autónoma del País Vasco dejase de ejercer competencias que tuviera asumidas.

La metodología de cupo para 2017-2021 en su art. 11.4 establece que, si durante cualquiera de los años del quinquenio, el Estado se reservara o asumiera nuevos compromisos de financiación derivados de medidas legislativas, de interés general o de acuerdos interinstitucionales, sobre materias cuya ejecución corresponda a las Comunidades Autónomas, se reunirá la Comisión Mixta del Concierto Económico para analizar y determinar la participación financiera que, en su caso, corresponda al País Vasco.

Según se dispone en el artículo 12, los cupos provisionales se liquidarán definitivamente por aplicación del valor real del índice de actualización, una vez conocida la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado en el ejercicio al que se refiere el cupo líquido y el año base del quinquenio. Excepcionalmente, para la liquidación definitiva del cupo líquido del año base del quinquenio se considera el valor real del índice de actualización, que se deduzca de la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado en el año base del quinquenio, respecto a la previsión de recaudación para ese mismo ejercicio que figure en el Presupuesto de Ingresos del Estado.

La liquidación definitiva se efectúa en el mes de mayo del ejercicio siguiente al que se refiere el cupo objeto de la misma, y las diferencias que origine con el cupo líquido y las compensaciones fijadas provisionalmente para el citado ejercicio se regularizan en el citado mes de mayo.

3.c.3. Normas comunes

El Capítulo IV de la Metodología 2017-2021

kapituluak arau erkideak jasotzen ditu: kupo ordainketari, Erantsiaren gaineko Zergari eta Fabrikazioko Zerga bereziei dagozkien doikuntzei buruzkoak.

Kupoaren ordainketari buruz Ekonomia ituneak araututakoa jasotzen du: kopurua hiru zenbateko berdinetan ordainduko da, ekitaldi bakoitzeko maiatzean, irailean eta abenduan

Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Fabrikazioko Zerga bereziei dagozkien doikuntzak, aparte aztertzen dira geroko beste atal batzuetan, duten berezitasunari eta garrantzi kuantitatiboari erreparatuta.

3.c.4. Xedapen gehigarriak eta iragankorrak

Lehenengo Xedapen Gehigarria: xedapen horrek eutsi egiten die lehenengo aldiz Kupoaren 1997-2001 Bosturtekorako Legean (37/1997 Legean), ezarritako finantza-konpentsazioei. Fabrikazioko Zerga Berezien ituntzearen ondorioz ezarri ziren konpentsazio horiek, hain zuzen ere, aurreko aldiarekiko finantza-neutraltasuna bermatze aldera.

Hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari lanaren, enpleguaren eta lanbide-heziketaren eremuko programa eta jarduera publikoekin lotutako kostuan parte hartzeagatik dagokion finantziazioa, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, ekitaldi bakoitzean ordaindu beharreko kupo likidoa konpentsatuta kenduko da.

Bosgarren Xedapen Gehigarriak aurreikusten duenez, Estatuaren eta gainontzeko erakundeen arteko zerga-araubidearen inguruko eskualdaketarik izanez gero edo autonomia-erkidegoen edo tokiko erakundeen finantzazio-sistema erreforma baten ondorioz Estatuaren Aurrekontu Orokorretan aldaketarik egonez gero, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, behar izanez gero, aztertu edo zehaztu egingo du abiaburu den urtearen Kupo likidoa berritzea edota dagokion eguneratze-indizea.

Zazpigarren Xedapen Gehigarrian, behin betikotzat hartzen da 2012-2016 bosturtekoari dagozkion behin betiko kupoak

regula las normas comunes referentes al ingreso del cupo y a los Ajustes por el IVA y los Impuestos Especiales de Fabricación.

Así, recoge lo dispuesto en el Concierto Económico, referente al ingreso del cupo en tres plazos iguales, durante los meses de mayo, septiembre y diciembre de cada ejercicio.

Respecto a los ajustes del Impuesto sobre el Valor Añadido y por los Impuestos Especiales de Fabricación, se analizan por separado en apartados posteriores, dada su especificidad e importancia cuantitativa.

3.c.4. Disposiciones Adicionales y Transitorias

Disposición Adicional Primera: se mantiene la vigencia de las compensaciones financieras establecidas por vez primera en la Ley Quinquenal de Cupo para 1997-2001 (Ley 37/1997), como consecuencia de la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación con el objeto de garantizar la neutralidad financiera con respecto a la etapa anterior.

La Disposición Adicional Tercera determina que la financiación que corresponde al País Vasco por su participación en el coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional, en consonancia con lo establecido en el Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre, se deducirá por compensación del cupo líquido a pagar en cada ejercicio.

La Disposición Adicional Quinta prevé que en el caso de que se produjese una reforma del régimen de cesión de tributos del Estado o una modificación sustancial en los Presupuestos Generales del Estado como consecuencia de la reforma del sistema de financiación de las Comunidades Autónomas o de los Entes Locales, se reunirá la Comisión Mixta del Concierto Económico para analizar o determinar, si procede, la revisión del cupo líquido del año base del quinquenio y/o del índice de actualización del mismo.

En la Disposición Adicional Séptima se declara definitiva la metodología seguida para el señalamiento de los cupos definitivos

ezartzeko jarraitu den metodologia, Batzorde Mistoak onartutako baldintzetan.

Zortzigarren xedapen gehigarriak aurreikusten du, soilik 2017-2021 ekitaldietan, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean ordaindu behar duen kupo likidoan konpentsatuta aplikatuko direla 2007-2011 bosturtekoaren likidazioaren emaitza, 2012-2016 bosturtekoarena eta 2017ko maiatzaren 17an Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoek hartu zituzten gainerako erabakiak, adostu diren baldintzetan.

4. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGARI DAGOKION DOIKUNTZA

Estatu eta EAEren arteko zerga bilketari egindako doikuntza bat da BEZaren doikuntza, eta zerga biltzaile diren Administrazioen diru-bilketa teorikoak eta errealak egokitzeko egiten da. Muga fiskalik gabeko eremuak izanda, Administrazio baterako zein besterako aurreikusitako diru-bilketak ez dira bat etortzen lurraldeotan benetan bildutako zenbatekoekin.

Ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa zergapetzen du BEZak, eta kontsumitzaileari jasanarazten zaio oso-osorik. Hala ere, oro har, ondasuna entregatu edo zerbitzua eman duen enpresaburu edo profesionalak egin behar izaten du, subjektu pasiboa den aldetik, zergaren ordainketa efektiboa.

Horiek horrela, ondasunen edo zerbitzuen kontsumoa ez bada, zati batean edo osorik, ekoitzi diren lurraldetik kanpo egiten, ez dira bat etorriko zerga bildu duen lurraldeak egindako diru-bilketa eta ondasunaren benetako kontsumoa gertatu den lurraldeko diru-bilketa. Zerga hori biltzeko moduak sortzen dituen arazoak konpontzeko bidea zerga-eskumenak dituzten Administrazioen artean finantza-doiketa da, magnitude makroekonomikoak erabilita (Ekonomia Ituneko 53. artikulua eta Kupoaren Bosturtekorako Legearen 14. artikulua).

Kargatutako jarduera ekonomikoa kontsumoa denez, erreferentziako lehen aldagaia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen kontsumo erlatiboa da, BEZa aplikatzen zaien lurraldeetako (Estatu osoa, Kanariak, Ceuta

correspondientes al quinquenio 2012-2016 en los términos aprobados por la Comisión Mixta.

La Disposición Adicional Octava prevé que exclusivamente en los ejercicios 2017-2021 se aplicará por compensación en el Cupo líquido a pagar por el País Vasco en cada ejercicio, el resultado de la liquidación del quinquenio 2007-2011, del quinquenio 2012-2016 y de los restantes acuerdos adoptados en la Comisión Mixta del Concierto Económico de 17 de mayo de 2017, en los términos acordados.

4. EL AJUSTE POR EL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

El Ajuste IVA constituye un ajuste a la recaudación tributaria entre el Estado y el País Vasco fundamentado en la necesidad de adecuar las recaudaciones, teóricas y reales, entre Administraciones tributarias, ya que en un espacio sin fronteras fiscales la recaudación que se asigna a una u otra Administración, conforme a los puntos de conexión, no responde a la efectivamente soportada en sus respectivos territorios.

El IVA grava el consumo de bienes y servicios, y es soportado por el consumidor en su totalidad. Sin embargo, generalmente, el responsable de efectuar el ingreso del Impuesto, en calidad de sujeto pasivo, es el empresario o profesional que ha efectuado la entrega del bien o prestado el servicio.

De esta forma, en la medida en que el consumo final se efectúe en un territorio diferente de aquél donde se realizó la fabricación, total o parcial, se produce un desajuste en la recaudación entre el territorio donde se ha ingresado el impuesto y el territorio donde se va a producir el consumo real del bien. La solución a esta distorsión, originada por la mecánica recaudatoria del impuesto, es un ajuste financiero entre las Administraciones tributarias, basado en magnitudes macroeconómicas (artículo 53 del Concierto y artículo 14 de la Ley Quinquenal de Cupo).

Dado que el hecho económico gravado es el consumo, la primera variable de referencia es el consumo relativo de los residentes en el País Vasco respecto al del territorio de aplicación del IVA (Estado excepto Canarias,

eta Melilla izan ezik) biztanleenarekin alderatuta. Euskal Autonomia Erkidegoari (a) esleitutako kontsumo-indize erlatiboa % 6,875 da.

$$a = \frac{\text{Euskadiko Egoiliarren Kontsumoa}}{\text{Estatuko Egoiliarren Kontsumoa (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe)}}$$

Beraz, BEZaren bidezko diru-bilketaren lehen egokitzapena aduanetan BEZaren bidez lortutako diru-bilketari % 6,875 aplikatzearen ondoriozkoa da, Estatuari baitagokio kontzeptu horren bidez dirua biltzea (Ekonomia Itunaren 5. artikulua).

Gainera, barne-eragiketen bidezko diru-bilketa behar bezala esleitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoak dirua biltzeko duen ahalmena kalkulatu behar da, termino makroekonomikoetan (b). Ahalmen hori ehunekotan adierazteko, kapital-eraketa gordina eta esportazioak kentzen zaizkio balio erantsi gordinari, eta Europar Batasuneko herrialdeetatik etorritako inportazioak gehitu (batasunaren barruko erosketak), eta agregatu hori Estatuan izan duen emaitzarekiko kalkulatu behar da.

$$b = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

v: Euskadiko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina.

V: Estatuko faktoreen kostuari erantsitako balio gordina (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

f: Euskadiko kapital-eraketa gordina.

F: Estatuko kapital-eraketa gordina (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

e: Euskadiko esportazioak.

E: Estatuko esportazioak (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

i: Euskadik Europako Erkidegoan egindako ondasun-eskuraketak.

Ceuta y Melilla). El índice de consumo relativo atribuido al País Vasco (a) es el 6,875%.

$$a = \frac{\text{Consumo Residentes País Vasco}}{\text{Consumo Residentes Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla)}}$$

Por tanto, el primer componente del ajuste a la recaudación por IVA viene dado por la aplicación del 6,875% al importe total del IVA recaudado en las aduanas, al corresponder al Estado la competencia de recaudación por este concepto (artículo 5 del Concierto Económico).

Además, para la correcta asignación de la recaudación por operaciones interiores, es necesario calcular la capacidad recaudatoria del País Vasco en términos macroeconómicos (b), expresada por la comparación del agregado definido como el valor añadido bruto menos la formación bruta de capital y las exportaciones, más las importaciones procedentes de países de la Unión Europea (adquisiciones intracomunitarias), respecto del mismo agregado en el Estado.

$$b = \frac{v - f - e + i}{V - F - E + I}$$

v: Valor añadido bruto al coste de los factores del País Vasco.

V: Valor añadido bruto al coste de los factores del Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

f: Formación bruta de capital del País Vasco.

F: Formación bruta de capital del Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

e: Exportaciones del País Vasco.

E: Exportaciones del Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

i: Adquisiciones intracomunitarias de bienes en el País Vasco.

I: Estatuak Europar Erkidegoan egindako ondasun-eskuraketak (Kanariak, Ceuta eta Melilla kontuan hartu gabe).

Euskal Autonomia Erkidegoari (a) esleitutako kontsumo-indize erlatiboa % 5,765 da.

Barne-eragiketengatik egindako diru-bilketarena da doiketaren bigarren elementua, eta horren zenbatekoa zehazteko, Euskadiko biztanleen kontsumo erlatiboaren (% 6,875) eta Euskadiren zerga-bilketako gaitasun teorikoaren (% 5,765) arteko diferentzia kalkulatzen da. Ondoren, zergaren ezarpen-eremuan lortutako barne-eragiketen BEZaren ondoriozko diru-bilketa osoari aplikatu behar zaio ehuneko hori.

Dena den, egokitzapena behar bezala aplikatzeko, kontuan hartu behar da ogasunek kudeaketari dagokionez duten eraginkortasuna; izan ere, administrazio batek teorikoki dagokiona baino diru gehiago bilduko balu, eraginkortasun handiago hori partekatu beharko luke. Horretarako, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren diru-bilketa teorikoak kalkulatzen dira, diru-bilketa errealak bilketa-ahalmenaren indizearekiko igotzeagatik. Egokitzapena kalkulatzeko, lortutako diru-bilketa teorikoetatik txikiena hartu behar da kontuan.

BEZaren bidezko diru-bilketari egin beharreko egokitzapena formula hau aplikatzearen emaitza izango da:

$RF_{PV} = RR_{PV} + a^* RR_{AD} + (a - b)^* H$

Non:

H= $\frac{RR_{PV}}{b}$ baldin eta $\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \leq \frac{b}{1-b}$

H= $\frac{RR_{TC}}{1-b}$ baldin eta $\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \geq \frac{b}{1-b}$

RF_{PV}: Urteko azken zerga-bilketa Euskadin.

RR_{PV}: Urteko benetako zerga-bilketa Euskadin.

RR_{TC}: Urteko benetako zerga-bilketa lurralde erkidean.

I: Adquisiciones intracomunitarias de bienes en el Estado (menos Canarias, Ceuta y Melilla).

El índice de capacidad recaudatoria (b) atribuido al País Vasco es el 5,765%.

El segundo componente del Ajuste, relativo a la recaudación por operaciones interiores se determina por la diferencia entre el consumo relativo de los residentes del País Vasco (6,875%) y la capacidad recaudatoria teórica del País Vasco (5,765%), aplicada a la recaudación total por IVA operaciones interiores obtenida en el territorio de aplicación del impuesto.

Sin embargo, para la correcta aplicación del Ajuste hay que tener en cuenta la eficacia en la gestión de las distintas haciendas, ya que en caso de que una Administración recaudara en mayor proporción que lo que teóricamente le corresponde, implicaría compartir su mayor eficacia. Para ello se calculan las recaudaciones teóricas del Estado y del País Vasco, por elevación de las recaudaciones reales respectivas en relación a su correspondiente índice de capacidad recaudatoria. Para el cálculo del Ajuste se tiene en cuenta la menor de las dos recaudaciones teóricas obtenidas.

El Ajuste a la recaudación por IVA será el resultado de aplicar la siguiente fórmula:

$RF_{PV} = RR_{PV} + a^* RR_{AD} + (a - b)^* H$

Siendo:

H= $\frac{RR_{PV}}{b}$ si $\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \leq \frac{b}{1-b}$

H= $\frac{RR_{TC}}{1-b}$ si $\frac{RR_{PV}}{RR_{TC}} \geq \frac{b}{1-b}$

RF_{PV}: Recaudación final anual para el País Vasco.

RR_{PV}: Recaudación real anual del País Vasco.

RR_{TC}: Recaudación real anual del Territorio Común.

RR_{AD}: Urteko benetako zerga-bilketa inportazioak direla-eta.

Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko zenbatekoak urte bakoitzeko apirilean, uztailean, urrian eta abenduan kalkulatu eta ordaintzen dira, hiruhileko bakoitzean bildutako diruaren arabera. (Abenduari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, azarora arte bildutakoa estrapolatzen da).

Ekitaldia itxi eta diru-bilketa erreala zein den jakin ondoren, BEZaren egokitzapenaren behin betiko likidazioa egiten da. Likidazioaren ondorengo emaitzak hurrengo ekitaldiko apirilean erregularizatzen dira, ekitaldi bereko lehen hiruhileko emaitzekin batera.

5. FABRIKAZIOKO ZERGA BEREZIEI DAGOZKIEN DOIKUNTZAK

BEZaren egokitzapenarekin lotuta adierazi den bezala, fabrikazioko zerga bereziei dagozkien doikuntzak tributu-bilketa egokitzeko mekanismoak dira, administrazio bakoitzari egotz dakizkiokeen diru-bilketa teorikoak eta errealak egokitze aldera, Ekonomia Itunean bildutako lotura-puntuen arabera.

Fabrikazioko zerga bereziei dagozkien egokitzapenak bereiz kalkulatzen dira: …….

- Alkohola, edari deribatuak eta tarteko produktuak batera kalkulatzen dira.
- Garagardoa
- Hidrokarburoak
- Tabako-laboreak

Horrekin lotutako erregulazioa Ekonomia Itunaren 54. artikuluan dago jasota, baita 2017-2021 bosturtekorako kupoa ezartzeko metodologiaren 15. artikuluan ere.

a) Udalerri bakoitzari 81.137 euro emango zaizkio.

b) Gainerakoa honako aldagai eta ehunekoen arabera banatuko da:

- Zenbatekoaren % 80 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuz.

2.c.2. Territorio Histórico de Bizkaia

Las participaciones de los Municipios en los ingresos por tributos concertados constituyen el Fondo Foral de Financiación Municipal-Udalkutxa. En la Norma Foral 7/2016, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para 2017 se fija el crédito presupuestario destinado a dicho fondo en 795.101 miles de euros, distribuido con los siguientes criterios:

1) El crédito presupuestario destinado a la financiación del ayuntamiento de Bilbao se cifra en 301.021 miles de euros.

2) Los créditos presupuestarios destinados a la financiación de imprevistos y a la Asociación de Municipios se cifran respectivamente en 5.963 y en 1.193 miles de euros.

3) El crédito presupuestario destinado a la financiación del resto de Municipios, excluido Bilbao, se cifra en 486.923 miles de euros. Los criterios de distribución son los siguientes:

a) Cada municipio percibirá una asignación de 81.137 euros.

b) El resto se distribuirá de acuerdo a las variables y porcentajes siguientes:

- El 80% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio.

- % 13 banatuko da, udalerri bakoitzeko zuzenbidezko biztanleei erreparatuta, ahalegin fiskalaren arabera haztatua.

- Gainerako % 7 honako portzentaje eta aldagaien arabera banatuko da:

  - Haur-hezkuntza, lehen hezkuntza eta hezkuntza berezia aintzat hartuta, % 60, ikastetxe publikoetan dauden unitate-kopuruen arabera.

  - % 18, langabeziaren arabera.

  - Beste % 18, sakabanaketa-mailaren arabera.

  - Gainerako % 4a, hondartzen arabera.

Aurreko zenbakian aipatutako banaketa-irizpideak aplikatuta udalerri bakoitzerako esleitu behar den aurrekontu-kreditutik, dagokion ordainketa egingo zaio bakoitzari, konturako ordainketa gisa; era horretara, beraz, kreditu horren hamabirena emango zaio bakoitzari hilero. Hileko lehen hogei egunetan ordainduko zaie.

Ekainaren 30eko 5/2008 Foru-Araua, jarduera ekonomikoa sustatzeko zerga neurriak, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate arloko aldaketara egokitzeko zerga neurriak eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituenean, udalerriek Lurralde Historikoko tributu itunduetan daukaten partaidetza-portzentajea, % 56 izango dela ezarri da.

Udalerriek tributu ez itaunduetan duten parte-hartzea tributu itunduetan izandako parte-hartzearen ondoriozko ehuneko berberetan banatuko da (2017ko aurrekontuen 7/2016 Foru Arauaren 35. art.).

- El 13% en función del número de habitantes de derecho de cada municipio, ponderado por su esfuerzo fiscal.

- El 7% restante en función de los siguientes porcentajes y variables:

  - El 60% en función del número de unidades escolares de educación infantil, primaria y especial existentes en centros públicos.

  - El 18% en función del paro.

  - El 18% en función de la dispersión.

  - El 4% restante en función de las playas.

Con cargo al crédito presupuestario resultante para cada municipio de la aplicación de los criterios de distribución contenidos en el número anterior, se efectuará un pago a cuenta mensual a cada uno de ellos, por importe de la doceava parte de dicho crédito. El pago se efectuará en los primeros veinte días de cada mes.

En la Norma Foral 5/2008, de 30 de junio, por la que se aprueban medidas fiscales para incentivar la actividad económica, de adaptación del Impuesto sobre Sociedades a la reforma contable y otras medidas tributarias, el porcentaje de participación de los municipios en los tributos concertados del Territorio Histórico se establece en el 56%.

La distribución de la participación de los Municipios en los tributos no concertados se hará con los mismos porcentajes que resulten de la participación en los tributos concertados (art. 35 N.F. 7/2016, de presupuestos para 2017).

2.c.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak onartzeko eman zen abenduaren 23an 7/2016 Foru Araua; horren bitartez, Udalen Finantzaketarako Foru Funtsari (UFFF) 468.313 mila euro esleitu zaizkio 2017an, Ekonomia Itunaren baliabideetan parte hartzeko. Hori horrela egin da, UFFF arautzen duen 15/1994 Foru Arauaren 2. artikuluak araututakoa betetzeko.

Abenduaren 27ko 12/2012 Foru Arauaren bidez zehaztu zen lurralde honen gutxieneko ehunekoa % 58 izango zela. Hain zuzen, gutxieneko ehunekoari aipu egiten zaio martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bidez onartutako Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko aplikatuko den metodologiaren laugarren xedapen gehigarrian.

15/1994 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, honela banatuko da Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren zenbateko osoa:

1. Gipuzkoako udalerrien artean banatuko da % 99,85. Hauek dira banaketa-irizpideak:

- 1.100 biztanletik beherako udalerriei % 1,2, zenbateko finko hauek emango zaizkie:

  200 biztanle artekoei.....84.141,69 €

  201 eta 400 artekoei.....72.121,45 €

  401 eta 600 artekoei.....60.101,21 €

  601 eta 1.000 artekoei....36.060,73 €

2.c.3. Territorio Histórico de Gipuzkoa

La Norma Foral 8/2016, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa fija la dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal, FFFM, para 2017 en la cantidad de 468.313 miles de euros, en concepto de participación en los recursos del Concierto Económico de acuerdo a lo previsto en el artículo 2 de la Norma Foral 15/1994, reguladora del FFFM.

El porcentaje mínimo señalado en la disposición adicional cuarta de la metodología de distribución de recursos y determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aprobada por Ley 2/2007 de 23 de marzo, se fija en este territorio en un 58%. Este porcentaje fue aprobado por Norma Foral 12/2012 de 27 de diciembre.

Según lo dispuesto en la Norma Foral 15/1994, la cuantía total del Fondo Foral de Financiación Municipal se distribuirá del siguiente modo:

1. El 99,85% entre los Municipios de Gipuzkoa según los criterios siguientes:

- 1,2% entre Municipios de hasta 1.100 habitantes, con los importes fijos:

  Hasta 200.....84.141,69 €

  De 201 a 400.....72.121,45 €

  De 401 a 600.....60.101,21 €

  De 601 a 1.000.....36.060,73 €

  De 1.001 a 1.100.....24.040,48 €

1.001 eta 1.100 artekoei.24.040,48 €

- % 90 banatzen da, udalerrien zuzenbidezko biztanleen proportzio zuzenari erreparatuta.

- % 2,15 Donostiari esleituko zaio, hiriburua den aldetik.

- % 3, Udalerri bakoitzaren errentaren alderantzizko proportzioan, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

- % 3,5, udalerri bakoitzeko ahalegin fiskalaren proportzio zuzenean, zuzenbidezko biztanleen kopuruaren arabera haztatuta.

- 90% en proporción directa a los habitantes de derecho de los Municipios.

- 2,15% se asignará a San Sebastián, por razón de capitalidad.

- 3% en proporción inversa a la renta de cada Municipio ponderada por el número de sus habitantes de derecho.

- 3,5% en proporción directa al esfuerzo fiscal de cada Municipio ponderado por el número de sus habitantes de derecho.

2. Funtseko zenbatekoaren gainerako % 0,15 EUDEL, Euskal Herriko Udalen Elkartea, finantzatzera bideratzen da berariaz.

2. El 0,15% restante del total de la cuantía del Fondo se destina a la financiación específica de la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin, hau da, otsailean, maiatzean, abuztuan eta azaroan emango dizkie udalerriei hasieran finkatutako zenbatekoen laurdena, gerora likidazioa egin beharko dela jakinda.

Trimestralmente, en los meses de febrero, mayo, agosto y noviembre, la Diputación Foral hará efectivo el pago a favor de los Municipios de la cuarta parte de las cantidades inicialmente previstas, sin perjuicio de la liquidación.

Abenduaren 23ko 9/2008 Foru Arauaren hamahirugarren xedapen gehigarriak 15/1994 Foru Araua aldatzen du, eta paragrafo bat gehitzen dio 6. artikuluari, eta honela idatzita geratuko da:

La Disposición Adicional Decimotercera de la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre, modifica la Norma Foral 15/1994, añadiendo un apartado al artículo 6 en los siguientes términos:

"4. Salbuespen gisa, aurreko 2. apartatuan aipatutako behin betiko likidaziotik Foru Aldundiaren alde atera daitezkeen saldoak geroratu edo zatikatu daitezke, Diputatuen Kontseiluak kasu bakoitzerako erabakitzen dituen moduan eta baldintzetan".

"4. Excepcionalmente, los saldos a favor de la Diputación Foral que, en su caso, resulten de la liquidación definitiva citada en el apartado 2 anterior podrán ser objeto de aplazamiento o fraccionamiento en los términos y en las condiciones que, para cada supuesto, acuerde el Consejo de Diputados".

Ekonomia Ituneko 51. artikuluak araututakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako toki-erakundeen artean banatu behar ditu itundu gabeko zergen zeharkako ekarpenetatik izan dituen diru-sarrerak.

La aportación indirecta mediante participación en tributos no concertados se distribuirá por la Diputación Foral entre los Municipios de Gipuzkoa, de acuerdo a lo previsto en el Concierto Económico (artículo 51).

2.d. Lurralde erkideko udalerrien finantzaketa

Udalerriek Estatuaren tributuetan duten partaidetza martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuan (LTOLTB) bildutako arauen arabera zehaztuko da.

2.d. Financiación de los Municipios en Territorio Común

La participación de los Municipios en los tributos del Estado se determinará con arreglo a las normas contenidas en el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, (TRLRHL).

1. Udalerri bakoitzaren partaidetza dela eta Finantzaketarako Funts Osagarrian 2017an egin beharreko konturako ekarpenen kopuru osoa berariaz kontsignatutako kredituan jasoko da Toki Erakundeekiko Finantza Koordinazioko Zuzendaritza Orokorreko 942M Programaren 36. Sekzioko 21. Zerbitzuan. Udalerri horiek Tokiko Ogasunak arautzekoa den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 111. artikuluak araututako eremu subjektibokoak izango dira.

1. El montante global de las entregas a cuenta de la participación de cada municipio incluido en el ámbito subjetivo del artículo 111 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, en el Fondo Complementario de Financiación correspondiente a 2017 se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 36, Servicio 21, Secretaría General de Coordinación Autonómica y Local. Entidades Locales, Programa 942M.

Zenbateko hori zehazteko, 2004ko behin betiko partaidetzaren % 95 hartuko da kontuan, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunen Legearen Testu Bateratuko 120. eta 121. artikuluetan azaldutako metodologia aplikatuko da.

El citado importe se determinará a partir del 95% de la participación definitiva del año base 2004 y aplicando la metodología de los artículos 120 y 121 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004 de 5 de marzo.

Aurreko zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioen % 95 gehituko zaio; murrizketa horiek, hain zuzen, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ondoko erreformaren ondorio dira. Konpentsazioak Estatuaren 2017ko zergazko diru-sarreren termino

A la cantidad anterior, se le añadirá el 95% de las compensaciones por mermas de ingresos derivadas de la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas actualizadas en los mismos términos que los ingresos tributarios del Estado en 2017

berberetan eguneratuko dira: behin betiko konpentsazioak 2004tik 2017ra bitarteko epean eguneratu diren moduan, eta, konpentsazio osagarriak, berriz, 2006tik 2017ra eguneratu diren moduan.

respecto a 2004, las definitivas, y respecto a 2006, las adicionales.

Finantzaketarako Funts Osagarrian 2017an egin beharreko konturako ekarpenak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabirena hilabete bakoitzean, hain zuzen ere.

Las entregas a cuenta de la participación en el Fondo Complementario de Financiación para 2017, serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del montante global.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidazioa egingo da.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado se procederá a efectuar la liquidación definitiva.

Finantzaketarako Funts Osagarriko partaidetzaz gainera, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111. artikuluko eremu subjektiboan dauden udalerriak honela finantzatzen dira: Estatuak PFEZaren, BEZaren eta Fabrikazio Zergen bidez bildutakoaren etekinen ehuneko batzuen lagapenaz, baldin eta etekin horiek autonomia-erkidegoei laga gabeak badira. Udalerriek 2017an zerga horiengatik lortzen den diru-bilketa likidoan parte hartuko dute, behin betiko likidazioaren konturako hileko ekarpenen bidez (12 ekarpen).

Además de la participación en el Fondo Complementario de Financiación, los municipios incluidos en el ámbito subjetivo del citado artículo 111 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se financian mediante de la cesión de determinados porcentajes de los rendimientos recaudatorios que no hayan sido cedidos a las CC.AA. obtenidos por el Estado por IRPF, IVA e Impuestos Especiales de fabricación. Los municipios participarán en la recaudación líquida que por estos impuestos se obtenga en 2017 mediante doce entregas mensuales a cuenta de la liquidación definitiva.

2. Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 122. artikuluan adierazitako eremu subjektiboan bildutako udalerri bakoitzari konturako ekarpenak ordaintzeko zenbateko osoa hauxe izango da: 2004. oinarri-urtean Estatuaren tributuetan duten partaidetza osoaren % 95, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren, 123. artikuluan aurreikusitako bilakaera-indizearekin eguneratua. Bada, zenbateko hori

2. El montante global destinado a realizar las entregas a cuenta a los municipios incluidos en el ámbito subjetivo del artículo 122 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, equivalente al 95% de su participación total en los tributos del Estado para el año base 2004 actualizado por el índice de evolución contemplado en el artículo 123 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se reconocerá con cargo al crédito específico consignado en la Sección 36, Servicio 21, Secretaría

kontzeptu honetan kontsignatutako berariazko kredituaren kontura ordainduko da: 36. Sekzioa, 21. Zerbitzua, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia. Toki Erakundeak, 942M Programa.

General de Coordinación Autonómica y Local. Entidades Locales, Programa 942M.

Estatuko zergen diru-sarreren igoera erabaki ondoren, behin betiko likidatu behar da udalerriek 2017ko Estatuko zergetan izango duten partaidetza.

Determinado el incremento de los ingresos tributarios del Estado, se efectúa la liquidación definitiva de la participación de los Municipios en los tributos del Estado para el 2017.

Zenbateko osoa honako irizpide hauei jarraituz banatuko da:

El importe global se distribuirá de acuerdo con los siguientes criterios:

a. Udalerri bakoitzak, eskuarki, 2003ko Estatuko zergetan izandako partaidetzaren behin betiko likidaziotik esleitutako zenbateko bera jasoko du. Zenbateko hori 2003ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa den abenduaren 30eko 52/2002 Legeko 65. artikuluko bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoetan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

a. Como regla general cada Ayuntamiento percibirá una cantidad igual a la resultante de la liquidación definitiva de la participación en los tributos del Estado de 2003 calculada con arreglo a lo dispuesto en los apartados dos, tres, cuatro y cinco del artículo 65 de la Ley 52/2002, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales para 2003.

b. Gainerakoa proportzioan banatuko da, jarraian adieraziko diren aldagaien eta ehunekoen eta a) puntuan finkatutako zenbatekoen artean izandako emaitza positiboari erreparatuta. Hala, honako aldagai eta ehunekoak aplikatuko dira:

b. El resto se distribuirá proporcionalmente a las diferencias positivas entre la cantidad que cada Ayuntamiento obtendría de un reparto en función de las variables y porcentajes que a continuación se mencionan y las cantidades previstas en la letra a) anterior. A estos efectos, las variables y porcentajes a aplicar serán:

- % 75, zuzenbidezko biztanleen arabera; biztanle-kopurua zehazteko orduan, Gobernuak ofizialki onartuta, udalerri bakoitzean 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen udaleko biztanle-errolda hartuko da oinarri. Biderkatzaile batek (1,00-1,40) haztatuko du kopuru hori, biztanleria-geruzei erreparatuz.

- 75% en función del número de habitantes de derecho de cada Municipio, según el padrón de población municipal vigente a 31 de diciembre de 2017, oficialmente aprobado por el Gobierno, ponderado por un coeficiente multiplicador (1,00-1,40), según estratos de población.

- % 12,5, udalerri bakoitzak 2015eko ekitaldian izandako batez besteko ahalegin fiskalari erreparatuz, zuzenbidezko biztanleek haztatuta, betiere, Gobernuak ofizialki onartuta 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoen biztanle-erroldaren arabera.

- % 12,5, zerga-gaitasunaren alderantzizkoaren arabera.

Aurreko zenbatekoari diru-sarreretan izandako murrizketen konpentsazioak gehituko zaizkio; murrizketa horiek, hain zuzen, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ondoko erreformaren ondorio dira. Konpentsazioak Estatuaren 2017ko zergazko diru-sarreren termino berberetan eguneratuko dira: behin betiko konpentsazioak 2004tik 2017ra bitarteko epean eguneratu diren moduan, eta, konpentsazio osagarriak, berriz, 2006tik 2017ra eguneratu diren moduan.

Udalerriek 2017ko ekitaldian Estatuko zergetan izango duten partaidetzaren zenbatekoak hilero ordainduko dira, zenbateko osoaren hamabiren bat emanez.

3. KUDEAKETA EKONOMIKOA

Ondoren, EAEko udalerrietako kudeaketa ekonomikoari buruzko datuak daude ikusgai. Horiek 2016ko ekitaldian likidatutako aurrekontuetatik hartu dira.

Datu hauek erakusten dute udalerriak eta eremu txikiagoetako toki-erakundeak areago batu direla, hau da, udalerriak, batetik, eta toki-erakunde txikiak, Administrazio-organo autonomoak eta Enpresa Publikoak, bestetik, estuago elkartu direla aurrekontuetan (azken bi kasuetan, % 50 baino gehiagoko partaidetza badago).

- 12,5% en función del esfuerzo fiscal medio de cada Municipio en el ejercicio de 2015, ponderado por el número de habitantes de derecho de cada Municipio según el padrón municipal vigente a 31 de diciembre de 2017 y oficialmente aprobado por el Gobierno.

- 12,5% en función del inverso de la capacidad tributaria.

A la cantidad anterior, se le añadirán las compensaciones por mermas de ingresos derivadas de la reforma del Impuesto sobre Actividades Económicas actualizadas en los mismos términos que los ingresos tributarios del Estado en 2017 respecto a 2004, las definitivas, y respecto a 2006, las adicionales.

Las entregas a cuenta de la participación en los tributos del Estado para el ejercicio 2017 serán abonadas mediante pagos mensuales equivalentes a la doceava parte del respectivo crédito.

3. GESTIÓN ECONÓMICA

Los datos sobre la gestión económica de los Municipios del País Vasco que se exponen a continuación han sido tomados de los presupuestos liquidados del ejercicio 2016.

Estos datos contienen la consolidación de los Municipios con las Entidades de ámbito inferior al Municipio, es decir, con las Entidades Locales Menores, los Organismos Autónomos Administrativos y las Empresas Públicas (en los dos últimos casos cuando el Ayuntamiento participa en más de un 50%).

Atal honen amaieran, udal-sektore publikoaren baterakuntza orokorraren laburpen-datuak ageri dira, betiere, kontuan hartuta bai udalerriaz azpiko eremuetako erakundeak bai udalerriaz gaindikoak ere (mankomunitateak eta partzuergoak).

Baterakuntza orokorraz ez da azterketa zehatzik egiten; izan ere, mankomunitateek eta partzuergoek udalerriei esleitutako aurrekontua ezin da partaidetza ekonomiko edo aurrekontu bidez egin, eta zerbitzu publikoaren eskaintzari buruzko balioztapenak (biztanleria, adibidez) aintzat hartuta egin behar da. Udal-baterakuntza bakoitzaren emaitza ez litzateke, beraz, udalerri bakoitzaren egoera ekonomikoaren isla zehatza, ezin delako inola ere datu horiek gainerako udalerriek dituztenekin konparatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan likidatutako aurrekontuek 2007 eta 2016 artean izan zuten bilakaera VIII.1 koadroan azaltzen da. Azken urte horretan likidatutako diru-sarrerak eta gastuak % 0,3 eta % 0,8 jaitsi ziren, hurrenez hurren, 2015ekoekin alderatuz.

2016an, diru-sarrerak eta gastuak Bizkaian eta Gipuzkoan hazi ziren. Araban, ordea, jaitsi ziren.

Al final de este apartado se presentan los datos resumen de la consolidación global del Sector Público Municipal, teniendo en cuenta tanto las entidades de ámbito inferior al Municipio como las supramunicipales (Mancomunidades y Consorcios).

El análisis detallado no se realiza con la consolidación global, dado que la atribución presupuestaria de las Mancomunidades y Consorcios a los Municipios no puede hacerse según la participación económica o presupuestaria, sino sólo en función de estimaciones sobre la prestación del servicio público (por ejemplo, población). El resultado de cada consolidación municipal no sería, por tanto, estrictamente el reflejo económico de cada Municipio, planteando innumerables problemas de comparación entre Municipios.

La evolución entre los años 2007 y 2016 de los presupuestos liquidados de los Municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco se presenta en el Cuadro VIII.1. En este último año los ingresos y los gastos liquidados bajaron un 0,3% y un 0,8%, respecto a 2015.

En 2016, ingresos y gastos crecen en Bizkaia y en Gipuzkoa, mientras caen en Álava.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERA ETA GASTUEN BILAKAERA
LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA 2007-2016
INGRESOS Y GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2007-2016
POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS

000€

URTEAK AÑOS	SARRERAK / INGRESOS				GASTUAK / GASTOS			
	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE
2007	603.347	1.941.324	1.224.824	3.769.495	577.013	1.772.439	1.220.172	3.569.624
2008	699.596	1.933.831	1.280.796	3.914.223	653.227	1.815.929	1.249.399	3.718.555
2009	708.157	2.024.713	1.451.720	4.184.590	681.594	2.057.952	1.460.724	4.200.271
2010	678.107	1.877.894	1.365.563	3.921.565	639.816	1.911.805	1.332.837	3.884.458
2011	575.702	1.699.357	1.134.837	3.409.896	589.225	1.708.867	1.242.780	3.540.871
2012	511.149	1.598.347	1.076.445	3.185.941	494.231	1.579.632	1.053.161	3.127.023
2013	541.267	1.507.797	1.088.637	3.137.701	519.939	1.508.815	1.058.134	3.086.889
2014	583.284	1.556.928	1.139.861	3.280.074	538.123	1.515.005	1.085.758	3.138.886
2015	569.923	1.551.175	1.146.642	3.267.739	566.235	1.490.944	1.076.548	3.133.727
2016	515.859	1.565.168	1.176.858	3.257.885	497.629	1.501.016	1.108.734	3.107.379
% 08/07	16,0	-0,4	4,6	3,8	13,2	2,5	2,4	4,2
% 09/08	1,2	4,7	13,3	6,9	4,3	13,3	16,9	13,0
% 10/09	-4,2	-7,3	-5,9	-6,3	-6,1	-7,1	-8,8	-7,5
% 11/10	-15,1	-9,5	-16,9	-13,0	-7,9	-10,6	-6,8	-8,8
% 12/11	-11,2	-5,9	-5,1	-6,6	-16,1	-7,6	-15,3	-11,7
% 13/12	5,9	-5,7	1,1	-1,5	5,2	-4,5	0,5	-1,3
% 14/13	7,8	3,3	4,7	4,5	3,5	0,4	2,6	1,7
% 15/14	-2,3	-0,4	0,6	-0,4	5,2	-1,6	-0,8	-0,2
% 16/15	-9,5	0,9	2,6	-0,3	-12,1	0,7	3,0	-0,8

VIII.1 KOADROA / CUADRO VIII.1

EAEko udalerrien diru-sarreren eta gastuen zenbatekoen bilakaera eta ehuneko-tasen aldaketaren eboluzioa ikus daitezke VIII.1 eta VIII.3 grafikoetan. Lurralde historikoak alderatzen ditu VIII.2 grafikoak.

En los Gráficos VIII.1 y VIII.3 se presenta la evolución de los importes totales de ingresos y gastos del conjunto de Municipios del País Vasco y sus tasas porcentuales de evolución. La comparación por Territorios Históricos aparece en el Gráfico VIII.2.



VIII.1 GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.1



VIII.2 GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.2



VIII.3 GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.3

3.a. Diru-sarrerak

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek 3.257,9 milioi euroko diru-sarrerak likidatu zituzten 2016an, aurreko urtean baino % 0,3 gutxiago. Diru-sarrera horien bilakaera VIII.2 koadroak irudikatzen du kapituluka sailkatuta, 2007-2016 aldiari dagokionez.

2016an, gehitu egin dira zuzeneko zein zeharkako zergapetzetik ateratako diru-sarrerak. Inbertsio errealen inorenganatzetik eta pasibo finantzieroetatik ateratako diru-sarrerak ere gehitu egin dira. Gainerako kapituletan, jaitsi egin da. Bolumenari dagokionez, nabarmentzekoa da 20 milioiko jaitsiera kapital-transferentzietan.

3.a. Ingresos

El importe de los ingresos liquidados en 2016 por los Municipios del País Vasco ascendió a 3.257,9 millones de euros, con un descenso del 0,3% respecto al año anterior. El Cuadro VIII.2 muestra, desglosado por capítulos, la evolución de los mismos en el período 2007-2016.

En 2016, aumentan los ingresos procedentes de la imposición, tanto directa como indirecta. Crecen, asimismo, los ingresos por enajenación de inversiones reales y por pasivos financieros. El resto de capítulos disminuye. Por volumen, destaca la caída de 20 millones en las transferencias de capital.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK KAPITULUKA ETA URTEKA 2007-2016 INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2007-2016 POR CAPÍTULOS Y AÑOS										
										000€
URTEAK AÑOS	KAPITULUAK / CAPÍTULOS									GUZTIRA TOTAL
	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.	
2007	537.260	121.982	655.559	1.705.962	94.612	222.952	217.422	101.430	112.314	3.769.495
2008	537.296	114.416	794.455	1.767.699	104.247	163.596	218.530	15.912	198.071	3.914.223
2009	561.954	90.082	744.086	1.563.222	129.076	136.917	601.741	63.782	293.731	4.184.590
2010	588.269	81.825	776.018	1.525.322	73.148	165.392	474.444	43.552	193.595	3.921.565
2011	596.287	71.463	736.772	1.519.123	89.237	106.188	213.940	4.140	72.746	3.409.896
2012	616.166	54.724	716.087	1.458.169	87.394	67.444	111.770	3.996	70.191	3.185.941
2013	645.373	42.142	707.471	1.450.134	61.817	82.976	84.645	13.312	49.831	3.137.701
2014	657.788	37.081	723.272	1.558.902	57.903	71.428	113.764	8.954	50.981	3.280.074
2015	666.125	44.288	676.377	1.605.299	61.967	57.798	91.564	7.496	56.826	3.267.739
2016	667.222	50.756	674.172	1.597.070	52.779	72.486	71.114	4.668	67.617	3.257.885
% 08/07	0,0	-6,2	21,2	3,6	10,2	-26,6	0,5	-84,3	76,4	3,8
% 09/08	4,6	-21,3	-6,3	-11,6	23,8	-16,3	175,4	300,8	48,3	6,9
%10/09	4,7	-9,2	4,3	-2,4	-43,3	20,8	-21,2	-31,7	-34,1	-6,3
%11/10	1,4	-12,7	-5,1	-0,4	22,0	-35,8	-54,9	-90,5	-62,4	-13,0
%12/11	3,3	-23,4	-2,8	-4,0	-2,1	-36,5	-47,8	-3,5	-3,5	-6,6
%13/12	4,7	-23,0	-1,2	-0,6	-29,3	23,0	-24,3	233,1	-29,0	-1,5
%14/13	1,9	-12,0	2,2	7,5	-6,3	-13,9	34,4	-32,7	2,3	4,5
%15/14	1,3	19,4	-6,5	3,0	7,0	-19,1	-19,5	-16,3	11,5	-0,4
% 16/15	0,2	14,6	-0,3	-0,5	-14,8	25,4	-22,3	-37,7	19,0	-0,3

VIII.2 KOADROA / CUADRO VIII.2



VIII.4 GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.4

2016 urteko udalerriz udalerri jasota, IV.2 eranskinean adierazten dira diru-sarreren xehetasunak, eta bertan ikus daiteke

Analizando el Anexo IV.2, en el que se recoge el detalle de los ingresos por Municipios en el año 2016, se observa que

Arabako diru-sarreren % 75,7 Gasteizi dagokiola. Beste bi euskal hiriburuei, hots, Bilbori eta Donostiari, beren lurralde historikoko diru-sarreren % 35,2 eta % 33,6 dagokie, hurrenez hurren. EAEko hiru hiriburuei, diru-sarrera guztien % 41,0 dagokie.

3.a.1. Tokiko zergen bilketa

Toki-zergen bilketen zenbatekoak, 2007 eta 2016 bitartekoak, VIII.3 taulak adierazten ditu; aldi horretan datuek urtetik urtera izandako aldaketa ere bertan azaltzen da. EAEko udalerrietan, 2016ko ekitaldian, 718,0 milioi euro bildu ziren toki-zergen bidez. Horrek % 1,1eko igoera ekarri zuen, 2015. urtearen aldean.

Ondoren, VIII.4 taulan, tokiko zergen bilketak aurkezten dira lurralde historikoka eta EAE osokoak, halaber, bere pisu espezifikoa jasotzen da.

Tokiko zergen zenbateko osoaren % 38,4 bildu dute EAEko hiru hiriburuek, eta zenbateko oso hori likidatutako diru-sarrera guztien % 22,0 izan da (% 21,7 2015ean). Zerga-bilketaren datuak lurraldeka adierazten ditu VIII.5 grafikoak, tokiko zergei erreparatuta.

en Álava el 75,7% de los ingresos correspondieron a Vitoria-Gasteiz. En el caso de las otras dos capitales vascas, Bilbao y San Sebastián, representaron el 35,2% y el 33,6% respecto de su Territorio Histórico, respectivamente. Las tres capitales vascas aglutinaron el 41,0% sobre el total de los ingresos.

3.a.1. Recaudación de tributos locales

La recaudación por tributos locales en el período 2007-2016 y su variación interanual se recoge en el Cuadro VIII.3. En el ejercicio 2016 la recaudación por tributos en los Municipios del País Vasco ascendió a 718,0 millones de euros. Esto supuso una subida del 1,1% respecto al año 2015.

En el Cuadro VIII.4 se presentan las recaudaciones por tributos locales, consolidados por Territorios Históricos y para la Comunidad Autónoma, así como su peso específico.

La recaudación por tributos locales, de la cual la correspondiente a las tres capitales vascas supuso el 38,4%, representó un 22,0% sobre el total de ingresos liquidados (21,7% en 2015). En el Gráfico VIII.5 se aprecia la distribución de la recaudación de los tributos locales por Territorios Históricos.

EAE-KO UDALERRIEN DIRU-SARRERAK BILTZEA. I. ETA II. KAPITULUAK ZERGA ZUZENAK ETA ZEHARKAKO ZERGAK, LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA RECAUDACIÓN CAPÍTULOS I Y II DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI IMPUESTOS DIRECTOS E INDIRECTOS POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS				
				000€
URTEAK AÑOS	ARABA ÁLAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE CAE
2007	118.557	324.835	215.851	659.243
2008	113.980	315.101	222.631	651.712
2009	111.204	324.352	216.479	652.036
2010	121.864	324.876	223.355	670.094
2011	124.554	315.676	227.521	667.750
2012	121.510	315.184	234.195	670.889
2013	121.401	321.063	245.052	687.515
2014	123.712	320.012	251.146	694.869
2015	135.440	317.360	257.612	710.412
2016	130.655	329.226	258.098	717.978
% 08/07	-3,9	-3,0	3,1	-1,1
% 09/08	-2,4	2,9	-2,8	0,0
% 10/09	9,6	0,2	3,2	2,8
% 11/10	2,2	-2,8	1,9	-0,3
% 12/11	-2,4	-0,2	2,9	0,5
% 13/12	-0,1	1,9	4,6	2,5
% 14/13	1,9	-0,3	2,5	1,1
% 15/14	9,5	-0,8	2,6	2,2
% 16/15	-3,5	3,7	0,2	1,1

VIII.3 KOADROA / CUADRO VIII.3

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALERRIETAKO TOKIKO ZERGEN BILKETA LURRALDE HISTORIKOKA 2016. EKITALDIAN RECAUDACIÓN DE TRIBUTOS LOCALES EN LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2016 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS								
								000€
TOKIKO ZERGAK IMPUESTOS LOCALES	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	ZENBATEKOA IMPORTE	EAE % % CAE
Ondasun Higiezinen g/ Zerga Impuesto s/ Bienes Inmuebles	66.802	51,1	168.177	51,1	138.244	53,6	373.223	52,0
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen g/ Zerga Impuesto s/ Vehículos Tracción Mecánica	18.270	14,0	64.269	19,5	48.385	18,7	130.924	18,2
Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren g/ Zerga Impuesto s/ Incr. Valor Terrenos Nat. Urbana	23.854	18,3	19.360	5,9	26.444	10,2	69.658	9,7
Jarduera Ekonomikoen g/ Zerga Impuesto s/ Actividades Económicas	13.689	10,5	50.911	15,5	28.817	11,2	93.416	13,0
Eraikuntza, Instalazio eta Obren g/ Zerga Impuesto s/ Construcción, Instalación y Obras	8.032	6,1	26.498	8,0	16.208	6,3	50.738	7,1
Beste zerga batzuk Otros impuestos	8	0,0	10	0,0			18	0,0
1. ETA 2. KAPITULUEN BATURA (1) SUMA CAPÍTULOS 1 Y 2 (1)	**130.655**	100,0	**329.226**	100,0	**258.098**	100,0	**717.978**	100,0
SARRERAK GUZTIRA (2) / TOTAL INGRESOS (2)	515.859		1.565.168		1.176.858		3.257.885	
% (1) / (2)	25,3		21,0		21,9		22,0	
% (1) / EAE-ko 1. eta 2. kapituluen batura % (1) / Suma Capítulos 1 y 2 de la C.A.E.	18,2		45,9		35,9		100,0	

VIII.4 KOADROA / CUADRO VIII.4

Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gainekoa

Los tres impuestos de implantación obligatoria, es decir, los Impuestos sobre

eta Jarduera Ekonomikoen gainekoa dira derrigorrez ezarri beharreko hiru tokiko zergak. Hiru zerga horiek, 2016an tokiko zergek bildutakoaren % 83,2 jaso zuten.

Bienes Inmuebles, sobre Vehículos de Tracción Mecánica y sobre Actividades Económicas, significaron el 83,2% de la recaudación por tributos locales en 2016.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren pisua % 52,0koa izan zen EAEn, batezbestekoa. Gipuzkoan, % 53,6 izan zen; Araban, eta Bizkaian, berriz, % 51,1ekoa.

De media, el Impuesto sobre Bienes Inmuebles representó el 52,0% en la CAE. En Gipuzkoa el 53,6% y en Álava y en Bizkaia, el 51,1%.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergak zerga guztien % 18,2 bildu zuen EAEn; zehazki, % 14,0 Araban; % 19,5 Bizkaian eta % 18,7, Gipuzkoan.

El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica supuso un 18,2% para el conjunto del País Vasco, un 14,0% en Álava, el 19,5% en Bizkaia y el 18,7% en Gipuzkoa.

2016ko ekitaldian, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren pisu erlatiboa % 13,0 izan zen. Bizkaiko udalerriak nabarmendu ziren (% 15,5). Bestalde, Arabakoak eta Gipuzkoakoak izan ziren % 10,5 eta % 11,2, hurrenez hurren.

En el ejercicio 2016 la importancia relativa del Impuesto sobre Actividades Económicas se sitúa en un 13,0%. Destacaron los municipios de Bizkaia con un 15,5%. Álava y Gipuzkoa, por su parte, se situaron en un 10,5% y en un 11,2%, respectivamente.

Hiri-lurren Balio Igoeraren gaineko Zergaren partaidetza, tokiko zergetan guztira bildutako zenbateko osoarekin alderatuta, % 9,7koa izan zen, udalerri guztiei dagokienez. Ehuneko hori, Araban, handiagoa izan zen, % 18,3, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 5,9koa eta % 10,2koa, hurrenez hurren.

La participación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana con relación a la recaudación total por tributos locales fue del 9,7% para el conjunto de los Municipios. En Álava se situó por encima con un 18,3% y en Bizkaia y Gipuzkoa fue de un 5,9% y un 10,2% respectivamente.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren pisu espezifikoa EAEn batezbestekoa % 7,1 izan zen.

El peso específico del Impuesto sobre Construcción, Instalaciones y Obras se sitúa en el 7,1% de media en la CAE.



VIII.5 GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.5

3.a.2. Beste diru-sarrera batzuk

Tasa eta beste diru-sarrera batzuei buruz, 3. kapituluan, honako hauek dira kontzeptu garrantzitsuenak: salmentak, zabor-bilketa eta ur-horniketa. 3. kapituluaren pisuak Euskal Autonomia Erkidego osoan % 20,7koa izan zen. Lurralde historikoei dagokienez Araban, % 20,9koa; Bizkaian, % 19,2koa; eta Gipuzkoan, % 22,6koa.

4. kapituluaren pisua (transferentzia arruntak), Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, ia ez da aldatu 2015etik: diru-sarreren % 49,0 da. 2016an, kapitulua gehitu egin da Araban (6,0 puntu gehiago), gutxitu egin da Bizkaian (2,5 puntu gutxiago) eta berdin jarraitzen du Gipuzkoan; partaidetzak, hurrenez hurren, % 45,3, % 52,8 eta % 45,6%.

3.a.2. Otros ingresos

Dentro del capítulo 3, tasas y otros ingresos, los conceptos más importantes son Ventas, Recogida de Basuras y Suministro de Agua. La importancia relativa del capítulo 3 en el conjunto del País Vasco fue del 20,7% del total de ingresos. En cuanto a los Territorios Históricos, señalar que en Álava se situó en un 20,9%, en Bizkaia el 19,2% y en Gipuzkoa el 22,6%.

El peso del capítulo 4, transferencias corrientes, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco apenas varía respecto a 2015 y representa un 49,0% de los ingresos. En 2016 el capítulo crece en Álava (+6,0 puntos), desciende en Bizkaia, (-2,5 puntos) y se mantiene en Gipuzkoa, con participaciones relativas del 45,3%, 52,8% y 45,6%, respectivamente.

5. kapituluak (ondare sarrerak) sarrera guztien % 1,6 eragiten ditu, eta garrantzi handiagoa dauka Bizkaian (% 1,9) Araban eta Gipuzkoan baino (% 1,8 eta % 1,2, hurrenez hurren).

El capítulo 5, ingresos patrimoniales, representa un 1,6% del total de los ingresos siendo mayor su entidad en Bizkaia (1,9%) y menor en Álava y Gipuzkoa (1,8% y 1,2%, respectivamente).

6. kapituluak (inbertsio errealen besterentzea) aurreko urtean baino pisu gutxiagoa izan du, eta diru-sarreren % 2,2 bildu du. Lurralde historikoen artean, Gipuzkoan dugu ehunekorik altuena (% 4,0), eta Araban, baxuena (% 1,0). Bizkaian, berriz, ehunekoa % 1,3ra iristen da.

El peso del capítulo 6, enajenación de inversiones reales, aumenta respecto al año anterior y supone un 2,2% del total de ingresos. Por Territorios Históricos el porcentaje más alto se registra en Gipuzkoa con un 4,0%, y el más bajo en Álava, 1,0%, mientras que el de Bizkaia se sitúa en el 1,3%.

EAEko UDALERRIEN DIRU-SARRERAK LURRALDE HISTORIKOKA ETA KAPITULUKA 2016. URTEAN
INGRESOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2016 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y CAPÍTULOS

000€

KAPITULUAK CAPÍTULOS	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	SARRERAK INGRESOS	LH % % T.H.	SARRERAK INGRESOS	LH % % T.H.	SARRERAK INGRESOS	LH % % T.H.	SARRERAK INGRESOS	EAE % % CAE
1. kapitulua. Zuzeneko Zergak Capítulo 1. Impuestos directos	122.615	23,8	302.717	19,3	241.890	20,6	667.222	20,5
2. kapitulua. Zeharkako zergak Capítulo 2. Impuestos indirectos	8.040	1,6	26.509	1,7	16.208	1,4	50.756	1,6
3. kapitulua. Tasak eta bestelako sarrerak Capítulo 3. Tasas y otros ingresos	107.941	20,9	300.574	19,2	265.657	22,6	674.172	20,7
4. kapitulua. Transferentzia arruntak Capítulo 4. Transferencias corrientes	233.582	45,3	826.410	52,8	537.077	45,6	1.597.070	49,0
5. kapitulua. Ondare sarrerak Capítulo 5. Ingresos patrimoniales	9.181	1,8	29.990	1,9	13.608	1,2	52.779	1,6
6. kapitulua. Inbertsio errealen besterenganatzea Capítulo 6. Enajenación inversiones reales	5.100	1,0	20.637	1,3	46.750	4,0	72.486	2,2
7. kapitulua. Kapital transferentziak Capítulo 7. Transferencias de capital	14.561	2,8	29.488	1,9	27.065	2,3	71.114	2,2
8. kapitulua. Finantza aktiboak Capítulo 8. Activos financieros	617	0,1	1.537	0,1	2.514	0,2	4.668	0,1
9. kapitulua. Finantza pasiboak Capítulo 9. Pasivos financieros	14.223	2,8	27.305	1,7	26.090	2,2	67.617	2,1
SARRERAK GUZTIRA / TOTAL INGRESOS	**515.859**	**100,0**	**1.565.168**	**100,0**	**1.176.858**	**100,0**	**3.257.885**	**100,0**

VIII.5 KOADROA / CUADRO VIII.5

Kapital-transferentziak biltzen dira 7. kapituluan, eta kontzepturik garrantzitsuena foru aldundietatik jasotako transferentziek osatzen dute. 2016an, diru-sarrera guztien % 2,2 bildu zen 7. kapituluan, 2015ean % 2,8. Lurralde historikoei dagokienez, Arabak, % 2,8, Bizkaiak % 1,9 eta Gipuzkoak % 2,3.

El concepto más importante del capítulo 7, transferencias de capital, es el de transferencias recibidas de las diputaciones forales. En 2016 el capítulo 7 supuso un 2,2% del total de ingresos frente al 2,8% de 2015. En cuanto a los Territorios Históricos, Álava un 2,8%, Bizkaia el 1,9%, y Gipuzkoa el 2,3%.

8.kapitulua finantza-aktiboei buruzkoa da: horko diru-sarrerek % 0,1ko partaidetza-maila eman zuten EAE osorako; hau da, 2015ekoa baino 0,1 puntu gutxiago.

9. kapituluaren garrantzi erlatiboa, diru-sarreren guztizkoarekiko, % 2,1 izan da. Araba izan da partaidetza handieneko lurraldea (% 2,8), jarraian, Gipuzkoa izan da (% 2,2) eta azkenik, Bizkaia izan da (% 1,7).

3.b. Gastuak

VIII.6 koadroan, 40.000 biztanletik gorako udalerrien gastuak azaltzen dira. IV.3 eranskinetik hartu dira datuak. 40.000 biztanletik gorako udalerri hauei EAE osoko gastuen %57,5 dagokie. Bestalde, EAEko hiru hiriburuek zenbateko guztiaren % 41,1 gastatu zuten. Lurralde historikoei dagokienez, nabarmentzekoa da Arabako hiriburuaren gastua lurralde horretan egindakoaren % 76,5ekoa izan zela.

Los ingresos procedentes del capítulo 8, activos financieros, presentan un nivel de participación del 0,1% para el conjunto del País Vasco, 0,1 puntos inferior al del 2015.

La importancia relativa del capítulo 9 en el conjunto de ingresos se sitúa en el 2,1%. Álava es el Territorio con mayor participación de este capítulo, 2,8%, Gipuzkoa le sigue con el 2,2% y en Bizkaia queda en el 1,7%.

3.b. Gastos

En el Cuadro VIII.6 se recogen los gastos de los Municipios de más de 40.000 habitantes, extraídos del Anexo IV.3. Estos Municipios supusieron el 57,5% del total de los gastos del conjunto de la Comunidad Autónoma. Por otra parte, el gasto de las tres capitales vascas alcanza el 41,1% del total. Por Territorios Históricos, cabe señalar que en Álava, la capital representó el 76,5% del total de gastos.

EAE-KO 40.000 BIZTANLETIK GORAKO UDALERRIETAN LIKIDATUTAKO GASTUAK 2016. URTEAN

GASTOS LIQUIDADOS EN MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2016
MUNICIPIOS CON MÁS DE 40.000 HABITANTES

000€

UDALERRIAK / MUNICIPIOS	2016KO BIZTANLERIA POBLACIÓN 2016	GASTUAK / GASTOS		
		ZENBATEKOA IMPORTE	LH % % T.H.	EAE % % CAE
BILBAO	342.397	512.874	34,2	16,5
VITORIA-GASTEIZ	242.254	380.823	76,5	12,3
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	180.558	382.843	34,5	12,3
GUZTIRA > 100.000 BIZTANLE TOTAL > 100.000 HABITANTES	**765.209**	**1.276.540**		**41,1**
BARAKALDO	98.199	113.726	7,6	3,7
GETXO	77.793	95.069	6,3	3,1
IRÚN	59.681	73.022	6,6	2,3
PORTUGALETE	46.323	69.439	4,6	2,2
SANTURTZI	45.716	56.844	3,8	1,8
BASAURI	40.897	50.489	3,4	1,6
ERRENTERIA	40.015	51.913	4,7	1,7
TOTAL 40.000-100.000 HABITANTES	**408.624**	**458.589**		**16,4**
GUZTIRA > 40.000 BIZTANLE TOTAL > 40.000 HABITANTES	**1.173.833**	**1.735.129**		**57,5**

VIII.6 KOADROA / CUADRO VIII.6

EAE-KO UDALERRIEN GASTUAK KAPITULUKA ETA URTEKA 2007-2016

GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2007-2016 POR CAPÍTULOS Y AÑOS

000€

URTEAK AÑOS	KAPITULUAK / CAPÍTULOS								GUZTIRA TOTAL
	1.	2.	3.	4.	6.	7.	8.	9.	
2007	951.177	1.296.629	27.997	216.638	870.240	35.719	71.110	100.114	3.569.624
2008	1.016.065	1.399.472	32.537	256.741	859.926	27.464	26.478	99.872	3.718.556
2009	1.079.640	1.383.513	21.486	286.153	1.265.051	29.560	15.658	119.209	4.200.272
2010	1.090.288	1.373.320	16.680	250.714	1.001.304	37.899	17.457	96.795	3.884.458
2011	1.079.204	1.363.368	21.994	241.279	664.907	29.136	9.552	131.431	3.540.871
2012	997.873	1.283.811	21.272	229.034	412.844	20.712	10.853	150.624	3.127.023
2013	1.027.389	1.277.694	18.303	240.910	327.339	15.523	18.320	161.411	3.086.889
2014	1.049.109	1.258.095	15.263	262.739	408.585	25.300	12.258	107.537	3.138.886
2015	1.085.807	1.265.143	15.228	252.832	349.753	19.306	9.706	135.952	3.133.727
2016	1.097.991	1.246.192	18.944	261.681	329.428	31.182	6.122	115.839	3.107.379
% 08/07	6,8	7,9	16,2	18,5	-1,2	-23,1	-62,8	-0,2	4,2
% 09/08	6,3	-1,1	-34,0	11,5	47,1	7,6	-40,9	19,4	13,0
% 10/09	1,0	-0,7	-22,4	-12,4	-20,8	28,2	11,5	-18,8	-7,5
% 11/10	-1,0	-0,7	31,9	-3,8	-33,6	-23,1	-45,3	35,8	-8,8
% 12/11	-7,5	-5,8	-3,3	-5,1	-37,9	-28,9	13,6	14,6	-11,7
% 13/12	3,0	-0,5	-14,0	5,2	-20,7	-25,1	68,8	7,2	-1,3
% 14/13	2,1	-1,5	-16,6	9,1	24,8	63,0	-33,1	-33,4	1,7
% 15/14	3,5	0,6	-0,2	-3,8	-14,4	-23,7	-20,8	26,4	-0,2
% 16/15	1,1	-1,5	24,4	3,5	-5,8	61,5	-36,9	-14,8	-0,8

VIII.7 KOADROA / CUADRO VIII.7

EAEko udalerriek gastuen kapituluetan urtetik urtera izandako bilakaera (2007 eta 2016 bitartean), VIII.7 Taulan adierazten da. 2016. urtean, % 0,8 jaitsi dira.

Gastua handitu duten kapituluak: langileen gastuak (% 1,1), finantza-gastuak (% 24,4), transferentzia arruntak (% 3,5) eta kapital-transferentziak (% 61,5).

Beste lau kapituluak gutxitu egin dira: ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak, 19,0 milioi euro gutxiago; inbertsio errealak, 20,3 milioi euro gutxiago; aktibo finantzarioak, 3,6 milioi euro gutxiago; eta pasibo finantzarioak, 20,1 milioi euro gutxiago.

VIII.8 koadroan, 2016an likidatutako gastuak ageri dira kapitulu eta lurralde historikoka banatuak, baita EAEkoak ere. Gastuen banaketa kapituluka irudikatzen du VIII.6 grafikoak.

La evolución interanual, entre los ejercicios 2007 y 2016, de los gastos por capítulos de los Municipios del País Vasco se presenta en el Cuadro VIII.7. En 2016, bajan los gastos un 0,8%.

Los capítulos que aumentan el gasto son los gastos de personal, (1,1%), los gastos financieros, (24,4%), las transferencias corrientes, (3,5%) y las transferencias de capital, (61,5%).

Los otros cuatro capítulos disminuyen su volumen: -19,0 millones de euros los gastos en bienes corrientes y servicios, -20,3 millones de euros las inversiones reales, -3,6 millones de euros los activos financieros y -20,1 millones de euros los pasivos financieros.

En el Cuadro VIII.8 se recogen los gastos liquidados en el año 2016, desglosados por capítulos y Territorios Históricos, así como para el conjunto de la Comunidad Autónoma. En el Gráfico VIII.6 se proporciona el desglose de gastos por capítulos.

EAE-KO UDALERRIEN GASTUAK LURRALDE HISTORIKOKA ETA KAPITULUKA 2016. URTEAN
GASTOS DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI EN 2016 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y CAPÍTULOS

000€

KAPITULUAK / CAPITULOS	ARABA / ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE / CAE	
	GASTUAK GASTOS	LH % % T.H.	GASTUAK GASTOS	LH % % T.H.	GASTUAK GASTOS	LH % % T.H.	GASTUAK GASTOS	EAE % % CAE
1. kapitulua. Pertsonal gastuak Capítulo 1. Gastos de personal	198.547	39,9	535.244	35,7	364.200	32,8	1.097.991	35,3
2. kapitulua. Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan Capítulo 2. Gastos en bienes corrientes y servicios	185.742	37,3	633.148	42,2	427.301	38,5	1.246.192	40,1
3. kapitulua. Finantza gastuak Capítulo 3. Gastos financieros	12.236	2,5	2.185	0,1	4.524	0,4	18.944	0,6
4. kapitulua. Transferentzia arruntak Capítulo 4. Transferencias corrientes	31.980	6,4	127.972	8,5	101.729	9,2	261.681	8,4
6. kapitulua. Inbertsio errealak Capítulo 6. Inversiones reales	48.842	9,8	140.729	9,4	139.857	12,6	329.428	10,6
7. kapitulua. Kapital transferentziak Capítulo 7. Transferencias de capital	354	0,1	9.665	0,6	21.163	1,9	31.182	1,0
8. kapitulua. Finantza aktiboak Capítulo 8. Activos financieros	363	0,1	3.437	0,2	2.322	0,2	6.122	0,2
9. kapitulua. Finantza pasiboak Capítulo 9. Pasivos financieros	19.565	3,9	48.636	3,2	47.639	4,3	115.839	3,7
GASTUAK GUZTIRA / TOTAL GASTOS	**497.629**	**100,0**	**1.501.016**	**100,0**	**1.108.734**	**100,0**	**3.107.379**	**100,0**

VIII.8 KOADROA / CUADRO VIII.8



VIII.6 GRAFIKOA / GRÁFICO VIII.6

EAE osoari erreparatuta, ondasun eta zerbitzuen erosketa kapituluak eragin zuen gastu handiena; gastu osoaren % 40,1, hau da, 1.246,2 milioi euro. Portzentajea lurraldeka: % 37,3 Araban, % 42,2 Bizkaian eta % 38,5 Gipuzkoan.

Para el conjunto de la Comunidad Autónoma, el capítulo de los gastos en bienes y servicios es el de mayor importancia relativa en el conjunto de gastos: un 40,1% (1.246,2 millones de euros), siendo el porcentaje por territorios: 37,3% en Álava, 42,2% en Bizkaia y 38,5% en Gipuzkoa.

Pertsonal gastuen kapitulua dator ondoren: 1.098,0 milioi euro, hau da, gastu osoaren % 35,3, iazko ehunekoa baino 0,7 puntu handiagoa. Araban pertsonal gastuak % 39,9 dira eta Bizkaian % 35,7. Gipuzkoarena, berriz, % 32,8 izan zen.

Le sigue el capítulo de gastos de personal, (1.098,0 millones de euros) que representó un 35,3% del total de gastos: 0,7 puntos superior al porcentaje del año anterior. Los gastos de personal representan en Álava el 39,9% y el 35,7% en Bizkaia. Gipuzkoa se sitúa en el 32,8%.

Inbertsio errealen guztizko gastuetan izandako parte-hartzea % 10,6 da (2015ean, % 11,2). Pisu erlatiboa 2,6 puntu jaitsi da Araban (% 9,8ra), % 0,8 puntu Bizkaian (% 9,4ra) eta 0,8 puntu igo da Gipuzkoan (% 12,6ra).

La participación en los gastos totales de las inversiones reales es de un 10,6% (en 2015 un 11,2%). Su peso relativo ha bajado 2,6 puntos en Álava hasta el 9,8%, 0,8 puntos en Bizkaia hasta el 9,4% y aumenta 0,8 puntos en Gipuzkoa hasta el 12,6%.

Transferentzia arrunten kapitulura, % 6,4 bideratu zuen Arabak, % 8,5 Bizkaiak eta % 9,2 Gipuzkoak; Euskal Autonomia Erkidego osorako, berriz, % 8,4koa izan zen 4. kapituluaren pisua.

En el capítulo de las transferencias corrientes el porcentaje de Álava fue de un 6,4%, el de Bizkaia de un 8,5% y el de Gipuzkoa de un 9,2%, siendo para el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco de un 8,4%.

Finantza pasiboek gastuen % 3,7 biltzen dute. Lurraldeka, Bizkaian du garrantzi erlatibo txikiena (% 3,2), eta Gipuzkoan, handiena (% 4,3).

El peso de los pasivos financieros es de un 3,7%. Por Territorios, Bizkaia es donde menor importancia relativa tiene este capítulo con un 3,2% y Gipuzkoa donde mayor, 4,3%.

Finantza aktiboen kapitulura baliabide gutxi bideratu ziren; baliabide guztien % 0,2, hain zuzen ere. Aipatzekoa da, halaber, Arabak eta Bizkaiak % 0,1eko eta % 0,6ko partaidetza izan zutela kapital-transferentzien kapituluan, hurrenez hurren; Gipuzkoak, ordea, % 1,9koa.

Al capítulo de los activos financieros se destinaron pocos recursos con un porcentaje que sólo alcanzó un 0,2%. En el capítulo de las transferencias de capital, señalar que la participación en Álava y Bizkaia fue del 0,1% y del 0,6%, respectivamente, siendo la de Gipuzkoa del 1,9%.

3.c. Zorpetzea

Zorrak aztertzeko "zor bizia" kontuan hartu behar da; hau da, urte bakoitzeko abenduaren 31n kitatu beharreko zorra.

3.c. Endeudamiento

Para analizar el endeudamiento se tiene en cuenta el concepto de "Deuda Viva", entendiendo como tal la deuda pendiente de amortizar a 31 de diciembre de cada año.

EAE-KO UDALERRIEN ZORRAK LURRALDE HISTORIKOKA ETA URTEKA 2007-2016 ENDEUDAMIENTO DE LOS MUNICIPIOS DE LA C.A. DE EUSKADI 2007-2016 POR TERRITORIOS HISTÓRICOS Y AÑOS				
				000€
